

**ADIKZIOEN LEGE PROIEKTUA****ZIOEN AZALPENA**

Adikzioak izaera aski zabaleko eta konplexutasun handiko gizarte fenomeno dira, horiek sortzeko arrazoietan eta horien garapen prozesuan elkar eragiten duten elementuen kopuruagatik eta adikzioek eragina duten eremu eta esparru ugariengatik. Adikzioak, denboran zehar, aldakorak dira eta ikuspegi ezberdinak izaten dituzte: garaian garaiko gizarte sentsibilitatea dago, substantzia eta portaera berriak sortzen dira; kontsumo-eredu berriak eta kontsumitzeko testuinguruak aldatzen dira; eta kaltetutako gizarte eta horren gizarte-ondorioak ezberdinak dira.

Adikzioak sortzeko arrazoiak konplexuak eta askotarikoak dira; ahultasun-faktore pertsonalez gain gizarte-faktoreek ere eragiten dute; azken horiek eragin handiagoa izaten dute, gainera, bereziki gatazka edo krisi garaian. Izan ere, pertsonaren lan eremua, alderdi biologiko, psikologiko, familiarreko, sozial eta ekonomikoa guztiz eraginda daude arrisku-faktoreei lotutako bizi-prozesuetan. Arrisku-faktoreak pertsonaren barneko zein kanpoko zirkunstantziak eta ezaugarriak dira, zeinek elkar eragiten duten eta horietako bakoitzaren ahalmena handitzen duten sinergiak sortzen dituzten; gainera, ahultasuna areagotzen dute eta kontsumo eta portaera arduragabeak modu okerrean garatu eta adikzioa sortzeko aukerak handiagotzen dituzte. Arrisku-faktore horietako asko egoera ekonomiko eta sozial kaltegarriekin erlazionatuta daude, baina egoera hori onuragarria den inguruetan ere sortzen dira. Horietaz gain, azpimarratzekoa da babes-faktoreen garrantzia, horiek jokabide arriskutsuak sortzeko probabilitatea murrizten baitute.

Droga kontsumitzeak edo portaera zehatz bat izateak ez du zertan problematikoa edo osasunarentzat kaltegarria izan; pertsonaren askatasuna aintzat hartuta horiek aukeratzeko eta horiekin batera arduraz bizitzeko eskubidea aitortu behar da. Hori horrela, portaera batzuen ondorioak negatiboak, kaltegarriak eta suntsitzaileak gerta daitezke: adikzioa sor dezakete eta kalte handia ekarri kontsumitzen duen edo portaera hori duen pertsonaren osasunarentzat –hilkortasun, morbiditate eta desgaitasunari dagokienez– eta haren familiarentzat eta gizartearentzat. Egoera horiek larriagoak suertatzen dira eta gizarte ardua handiagoa eragiten dute kaltetutako pertsonak adingabeak edo gizarte talde kalteberak direnean.

Azaroaren 11ko 15/1998 Legeak ezarri zituen droga-mendekotasunen arloan prebentzio, laguntza eta gizarteratze politikak gauzatzeko oinarriak. Lege hori Autonomia Estatutuak Euskal Autonomia Erkidegoari esleitutako eskumenen esparruan onartu zen.

**PROYECTO DE LEY SOBRE ADICCIONES****EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Las adicciones son un fenómeno social de notable amplitud y extraordinaria complejidad, debido a la interacción de elementos que convergen en sus causas y en su proceso de desarrollo, y debido a la variedad de ámbitos y áreas que pueden verse afectados. Las adicciones son además cambiantes y adquieren vertientes diferentes en el tiempo, en función de la sensibilidad social, de la aparición de nuevas sustancias y conductas, de nuevos patrones y nuevos contextos de consumo, de la población afectada y de sus consecuencias sociales.

Las causas de las adicciones son muy complejas y variadas pues, a los factores de vulnerabilidad de índole personal, se deben añadir otros de carácter social, más influyentes, aún si cabe, en épocas de conflicto o crisis. En efecto, las esferas biológica, psicológica, familiar, social, laboral y económica de la persona resultan implicadas en los procesos vitales de la vida influidos por los factores de riesgo; es decir, por circunstancias y características internas o externas de la persona, que interactúan entre sí, produciendo sinergias que multiplican su potencial y aumentan la vulnerabilidad y las probabilidades de que los consumos y conductas irresponsables se desarrollen indebidamente y generen una adicción. Una gran parte de estos factores de riesgo están relacionados con las negativas condiciones sociales y económicas, pero también en entornos socio-económicos favorables se generan factores de riesgo. Junto a éstos últimos, no puede dejarse de reconocer la existencia de los factores de protección, que son aquellos elementos que disminuyen las probabilidades de desarrollar dichos comportamientos.

No todos los consumos de drogas y las conductas de las personas son de por sí problemáticas o perniciosas para la salud pues, dentro de la libertad personal, es innegable el derecho a elegir las libremente y a convivir con ellas de forma responsable. Sin embargo, los efectos de algunas conductas son negativos, incluso nefastos y devastadores, generando una adicción, provocando cuantiosos daños a la salud tanto de las personas consumidoras –en términos de mortalidad, morbilidad y discapacidad–, como a la de sus seres más cercanos, y a la sociedad en general. Estas situaciones son particularmente lamentables cuando resultan afectadas las personas menores de edad, cuyo proceso de desarrollo puede verse seriamente comprometido por conductas irresponsables y de riesgo, o personas pertenecientes a colectivos socialmente vulnerables, generando por ello una gran preocupación social.

Las bases para llevar a cabo las políticas de prevención, asistencia y reinserción en materia de drogodependencias en la Comunidad Autónoma de Euskadi, se establecieron mediante la Ley 15/1988, de 11 de noviembre, dictada en el marco de las competencias que el Estatuto de Autonomía otorga a la Comunidad Autónoma de Euskadi.



Geroago, Droga-mendekotasunen arloko prebentzioa, laguntza eta gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legeak jaso zituen Eusko Legebiltzarreko droga-mendekotasuneko batzordearen 1994ko ekainaren 30eko erabakian adostutako gidalerroak. Testu horrek, eduki eta egitura berriak izan arren, Euskal Autonomia Erkidegoko droga-mendekotasunen arloko legeriak beti izan zuen izaera pedagogikoa mantendu zuen, eta erkidegoaren estrategia indartu zen. Estrategia horren ezaugarri ziren globalizazioa, normalizazioa, plangintza eta parte-hartzea.

Berriki, Droga-mendekotasunen arloko prebentzioa, laguntza eta gizarteratzeari buruzko otsailaren 3ko 1/2011 Legeak ekainaren 25eko 18/1998 Legea aldatu zuen, tabakoaren esparruan Osasunaren Mundu Erakundeak, Europar Batasunak eta Estatuko oinarritzko legeriak osasun publikoaren babesaren arloan proposatutako betekizunak barneratzeko.

Lege-testu honek terminologia eguneratuagoa –egungo ikerketek proposatzen dutena– eta egitura sistematiagoa badu ere, lege berria egiteko arrazoi nagusia funtsaren eta edukiaren ingurukoa da.

Horren haritik, lege honek adikzioak diziplina anitzeko eta erabateko ikuspuntu batetik lantzea proposatzen du, osasunerako hezkuntza oinarri gisa hartuta, adikzioen arloan eragina duten esparru orotan. Orain arte drogen arloa hainbat esparrutan kokatu da, baina egun ez da ordena publikoko arazo bakarrik, eta ez dira osasunaren arlotik edo gizarte-zerbitzuen arlotik bakarrik aztertu behar; egun, adikzioak osasun publikoko arazo direla onartzen da eta gizartearen konpromisoa eta ardura behar dira horiei aurre egiteko.

Arau berriak, dagokion lege mailarekin, juridikoki erantzun behar die botere publikoek fenomeno honen aurrean une eta egoera bakoitzean adostu behar dituzten neurriei, batez ere adingabeak eta talde kalteberak babesteko.

Diziplina anitzeko lege hau Euskal Autonomia Erkidegoak dituen eskumenen esparruan kokatzen da. Oinarritzko eskumena osasunarena da, baina aipatzeak dira beste eskumen hauek ere: hezkuntza, kultura, gazteria eta kirola, gizarteratzea, politika komunitarioa, segurtasuna, higiena eta laneko osasuna, ingurumena, toki-arabidea, barne-merkataritza, justizia administrazioa eta espetxeak, publizitatea eta hedabideak, hirigintza, jokoak, estatistika eta ikerketa.

Posteriormente, la Ley 18/1998, de 25 de junio, sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias, incorporó a su articulado las directrices contenidas en el acuerdo de 30 de junio de 1994 de la Comisión sobre las Drogodependencias del Parlamento Vasco. Este texto legal, aun con sus contenidos novedosos y cambios estructurales, mantuvo el carácter pedagógico, presente desde sus orígenes en la legislación en materia de drogodependencias de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y reforzó la estrategia comunitaria caracterizada por la globalización, la normalización, la planificación y la participación.

Más recientemente, la Ley 1/2011, de 3 de febrero, sobre Prevención, Asistencia e Inserción en materia de Drogodependencias, reformó la Ley 18/1998, de 25 de junio, en lo referente a las cuestiones relacionadas con el tabaco, para adaptarlas a las exigencias planteadas en el ámbito de la protección de la salud pública por la Organización Mundial de la Salud, la Unión Europea y la legislación básica del Estado.

Este nuevo texto legal no sólo obedece a la necesidad de adaptar y modernizar la terminología a los estudios más recientes en la materia, y a una estructuración más sistemática y ordenada de las materias, sino que son razones de fondo y de contenido las que sobre todo justifican una nueva norma.

En este sentido, esta ley pretende un abordaje multidisciplinar e integral de las adicciones, haciendo especial énfasis en la educación para la salud en todos los ámbitos y áreas que tienen incidencia en las adicciones. En efecto, hasta ahora, la materia de las drogas se ha ubicado en ámbitos diversos, pero ya no solo se trata de una cuestión de orden público, ni únicamente meritoria de atención sanitaria o desde los servicios sociales; según se admite mayoritariamente en el momento actual, las adicciones son una cuestión en la que está comprometida la salud pública y cuyo abordaje requiere la concurrencia del compromiso y de la responsabilidad social.

Una nueva norma, con el debido rango legal, debe dar amparo jurídico a las medidas oportunas y convenientes que, fruto del consenso y colaboración, deben adoptar los poderes públicos en cada momento y situación ante este fenómeno, especialmente en defensa de las personas menores de edad y de los colectivos socialmente más vulnerables.

Esta ley multidisciplinar se sitúa en el marco de las competencias de las que es titular la Comunidad Autónoma de Euskadi, siendo título competencial relevante el de salud, al que vienen a confluír otros tantos como el de educación, cultura, juventud y deporte, inclusión social, política comunitaria, seguridad, higiene y salud laborales, medio ambiente, régimen local, comercio interior, administración de justicia e instituciones penitenciarias, publicidad y medios de comunicación, urbanismo, juego, estadística e investigación.

Bere aldetik, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 legeak, 2. artikuluan, osasunaren instituzio-eremua arautzen du. Horri jarraiki, euskal agente publiko guztien lehentasuneko zeregina da osasuna sustatu eta indartzea. Halaber, 13. artikuluan xedatzen duenez, Euskadiko Osasun Plana sistema planifikatzeko eta programatzeko lanabes nagusia da.

Idazteko prozesuan aintzat hartu dira nazioarte mailako erreferentziak, bereziki Osasunaren Mundu Erakundearenak eta Europar Batasunarenak. Aipatze-koak dira: Drogaren aurkako Europar Batasunaren Estrategia 2013-2020 eta Osasunaren Mundu Erakundearen europar eskualdeko alkoholaren erabilera kaltegarria murrizteko Europako Ekintza Plana 2012-2020 eta berriki onartu den 2014/40/UE Direktiba, tabako-produktuen eta horiekin erlazioatutako beste produktuak egiteko, aurkezteko eta saltzeko estatu kideek bete beharreko legezko xedapenak jasotzen dituen. Direktiba horrek 2001/37/CE direktiba indargabetzen du.

Adikzioen Legeak egitura sistematikoa du eta gai bakoitza dagokion esparruan kokatzen du. 97 artikululu ditu, zazpi titulutan banatuta, bi xedapen gehigarri, xedapen iragankor bakarra, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azkeneko xedapen.

Atariko tituluak legearen printzipio gidariak eta helburu orokorrak jasotzen ditu, eta bertan testuaren arima eta berritasun nagusiak ageri dira. Legearen xedeak adierazten du erregulazioak izango duen ikuspegi integral eta globala, hau da, esku hartuko den esparru nagusiak zehazten ditu: osasunaren sustapena, adikzioen prebentzioa, eskaintzaren murrizketa, laguntza eta gizarteratzea, ezagutzaren garapena eta kudeaketa eta esparru horietan jasotako neurriak gauzatzeko egitura instituzionala.

Legearen esparru materialak adikzioak sor ditzaketan substantziak jasotzen ditu; alde batetik, gizar-tean oso errotuak daudenak, hau da, tabakoa eta alkohola; eta beste alde batetik, kalamuaren eratorriak, beste opiazeo batzuk, psikoestimulanteak, haluzinogenoak, sendagai psikotropikoak, anfetaminen eratorriak eta beste substantzia sintetiko edo fabrikazio kimikoko batzuk.

Tabakoa oraindik osasun publikoko arazo nagusienetakoa da, heriotza eragin dezakeen eta prebentitu litekeen kausa nagusia; gainera, bizi kalitatea galtzea eragiten du eta bizi itzaropena murrizten du. Osasunaren Mundu Erakundeak alkohola pertsonaren osasun fisiko, psikiko eta sozialerako drogarik kaltegarrienetakoa dela aitortzen du, bereziki adingabeentzat, adin horretan sortzen ari baitira osasun ohiturak; egoera benetan larria da gizarte tolerantzia handia denean, gure inguruan gertatzen den bezala. Euskadin

Por su parte la Ley 8/1997, de 26 de junio, de Ordenación Sanitaria de Euskadi en su artículo 2 se refiere al marco institucional de la salud y atribuye a todos los poderes públicos vascos la misión preferente de promocionar y reforzar la salud. Así mismo, en su artículo 13 establece que el Plan de Salud de Euskadi es el instrumento superior de planificación y programación del sistema sanitario.

En el proceso de redacción, se han tenido en cuenta las referencias internacionales, muy especialmente de la Organización Mundial de la Salud y de la Unión Europea, como la Estrategia de la Unión Europea en materia de lucha contra la droga 2013-2020, y el Plan de Acción Europeo para reducir el Uso Perjudicial del Alcohol 2012-2020 de la Organización Mundial de la Salud de la Región Europea, así como la reciente Directiva 2014/40/UE relativa a la aproximación de las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los estados miembros en materia de fabricación, presentación y venta de los productos del tabaco y los productos relacionados y por la que se deroga la Directiva 2001/37/CE.

La Ley sobre Adicciones presenta una estructura sistemática y ordena la ubicación de las materias en el área a la que pertenecen. Así, contiene 97 artículos, distribuidos en siete Títulos, dos Disposiciones adicionales, una única Disposición transitoria, una única Disposición derogatoria y tres Disposiciones finales.

El Título Preliminar establece los grandes principios inspiradores y los objetivos generales de la ley, anunciando el espíritu y las novedades más relevantes del nuevo texto. En efecto, el objeto de la ley revela una perspectiva integral y global de la regulación, identificando las grandes áreas de intervención, esto es, las áreas de promoción de la salud, prevención de las adicciones, reducción de la oferta, asistencia e inclusión social, desarrollo y gestión del conocimiento, así como la regulación de la organización institucional articulada para llevar a cabo las medidas recogidas en aquellas áreas.

El ámbito material de la ley contempla las sustancias con capacidad adictiva, algunas de consumo muy arraigado en nuestro entorno como el alcohol o el tabaco, y otras como los derivados del cannabis, otros opiáceos, los psikoestimulantes, los alucinógenos, los medicamentos psicotrópicos, los derivados anfetamínicos y otras sustancias sintéticas y procedentes de la fabricación química.

El tabaco continúa siendo uno de los más importantes problemas de salud pública, y es la causa prevenible más importante de mortalidad, que provoca, además, una notable pérdida de calidad de vida y disminución de la esperanza de vida. El alcohol ha sido considerado por la Organización Mundial de la Salud como una de las drogas potencialmente más peligrosas para la salud física, psíquica y social de las personas, en especial cuando se trata de personas jóvenes que están adoptando sus hábitos de salud,

kalamu kontsumoa Europako handienetarikoa da, eta gizartean gero eta zabalduago dago kalterik ez duela sortzen. Psikofarmakoen automedikazioa gero eta handiagoa da gure inguruan, batez ere emakumeen artean. Aipatu behar da, gainera, droga sintetikoak etengabe berritzen direla festa eremuetan, eta zenbait konposaturen legezko erabilera aldatu ere egiten da kontsumo-droga bihurtzeko, eta horrek ondorio latzak izaten ditu.

Legeak, lehen aldiz, nikotina aska dezaketen gailuak arautzen ditu. Nikotina aska dezakeen gailua da nikotina duen lurrina kontsumitzeko erabili daitekeen edozein produktu, haren osagaiak eta hura birkargatzeko ontziak. Produktu horien erabilera eta salmenta asko ugarritu da azken boladan. Nikotinarik izan ez arren, egun ezin da esan kalterik ez duela sortzen, ez dago produktu horrek erabiltzaileen eta inguruko osasunean sor ditzakeen eraginaren inguruko ebidentzia zientifikorik, eta ezin da esan tabakoaren ordezkioa denik edo erretzeari uzten laguntzen dionik.

Komunitate mediku zientifikoaren gehiengoak ikusi du produktu horien erabiltzaileak bitariko erretzaile bihurtzen ari direla. Horretaz gain, ez da ahaztu behar produktu hori leku publikoetan batera bereizketarik gabe erabiltzeak tabakoaren araudiak eragin duen normalizazio prozesua kaltetu dezakeela. Osasunaren Mundu Erakundeak 2013ko uztailan produktu horiek ez erabiltzea gomendatu zuen, seguruak, eraginkorrak eta kalitatezkoak zirela ziurtatzen duten datuak izan arte eta estatu mailako erakunde arautzaile batek horrela aitortu arte; gainera, 2014ko abuztuan argitaratutako txosten batean jasotzen du nahikoa ebidentzia badagoela horien inguruan ohartarazteko, eta produktu horien erabilera publikoa debekatea gomendatzen du gune itxietan, adingabeei saltzea eta erretzeari uzteko produktu bezala agertzea. Horri dagokionez, estatuan, martxoaren 27ko 3/2014 Legeak aurreko abenduaren 26ko 28/2005 Legea aldatu du –tabakismoaren aurkako osasun-neurriak eta tabako-produktuen salmenta, horniketa, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituen 28/2005 Legea– eta gailu horien salmenta, kontsumo eta publizitatea arautu ditu.

Europar Batasunean onartu berri den 2014/40/UE Direktibak –tabako-produktuen eta horiekin erlazionatutako beste produktuek egiteko, aurkezteko eta saltzeko estatu kideek bete beharreko legezko xedapenak jasotzen dituen– gailu horien salmenta arautu du, eta estatu kide bakoitzak bere araudia egiteko aintzat hartu behar duen legeria orokorra eta estandarra da. Direktiba horrek 2001/37/CE Direktiba indargabetu du.

más aún, como ocurre en nuestro entorno, cuando existe un nivel alto de tolerancia social. En Euskadi existen los mayores consumos de cannabis de toda Europa, con una progresiva percepción social de inocuidad. La automedicación mediante psicofármacos es cada vez más frecuente en nuestro medio, sobre todo entre las mujeres. No podemos olvidar el proceso de renovación constante de drogas sintéticas en un contexto de ocio y diversión. Y, finalmente, también se produce la utilización de compuestos cuyos usos legales se alteran para convertirse en drogas de consumo con efectos demoledores.

Como novedad, la ley regula los dispositivos susceptibles de liberación de nicotina, que son aquellos productos, cualquiera de sus componentes o incluso los envases de recarga, que puedan utilizarse para el consumo de vapor que contiene nicotina, habiendo proliferado de forma significativa y rápida en los tiempos más recientes su utilización y comercialización. Incluso en el caso de no contener nicotina, al día de hoy no se ha podido determinar de modo concluyente su carácter inocuo, puesto que no hay evidencia científica sobre el impacto en la salud de las personas usuarias directas y de otras personas del entorno, y por ello no puede predicarse que se trata de un sustitutivo del tabaco ni que ayude a dejar el hábito de fumar.

La mayoría de la comunidad médico-científica constata que las personas usuarias se están convirtiendo en personas fumadoras duales. Todo ello sin olvidar que su utilización indiscriminada en lugares públicos puede comprometer el proceso de normalización que se ha conseguido tras la regulación del tabaco por la normativa vigente. De hecho, la Organización Mundial de la Salud en julio de 2013 recomendó no utilizar estos artículos y desaconsejaba el producto hasta que no haya datos que demuestren que es un producto seguro, eficaz y de calidad aceptable, y que todo ello esté certificado por un organismo regulador nacional competente; y en un informe publicado en agosto de 2014, considera además que hay suficiente evidencia para advertir sobre estos dispositivos y recomienda prohibir su uso en espacios públicos cerrados, su venta a los menores y cualquier tipo de reclamo o alegación sobre su utilidad para dejar de fumar. A este respecto, en el ámbito estatal, la Ley 3/2014, de 27 de marzo, ha modificado la Ley 28/2005, de 26 de diciembre, de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos del tabaco y ha regulado aspectos relativos a la venta, consumo y publicidad de estos dispositivos.

Por lo que respecta a la Unión Europea, la reciente Directiva 2014/40/UE relativa a la aproximación de las disposiciones legales, reglamentarias y administrativas de los estados miembros en materia de fabricación, presentación y venta de los productos del tabaco y los productos relacionados y por la que se deroga la Directiva 2001/37/CE, ha regulado la comercialización de estos dispositivos, constituyendo la legislación general y estándar que cada estado miem-

Azken urteetan ikusi da ezen, adikzioak eragiten dituzten ohiko substantzietz gain, badirela, gero eta sarriago, zenbait jokabide, behin eta berriz, modu jarraian eta desegokian errepikatuz gero, substantzietziko adikzioek sortzen dituzten bezainbesteko arazoak edo adikzio-ereduak sor ditzaketanak.

Horregatik, lege berriak bere esparru materiala zehaztean adikzioei egiten die erreferentzia, eta, zentzu zabalean, substantzietziko adikzioak eta jokabide-adikzioak edo substantziarik gabeko adikzioak barne hartzen ditu. Gainera, mendekotasun-egoerari aurre egiteko xedez, aipamena egiten die adikzio aurreko arrisku-faktoreei, kontsumo problematikoei eta jokabide-adikzioak eragin ditzaketen portaera neurrigabeei.

Gure inguruan ugaritu egin da gizarte-sareen, teknologia digitalen, horientzako diseinatutako aplikazio berrien, telefono mugikorren, bideojokoen eta antzekoen erabilera, eta kezka sortzen du horien erabilera desegokiak edo gehiegizkoak. Adituak diren nazioarteko erakundeak portaera neurrigabe hauek adikzio gisa sailkatzea aztertzen ari dira, eta, horregatik, lege honek, adikzio eredu bat eragin dezaketela jakinda, jokabide-adikzioen parean jartzen ditu.

Portaera horietaz gain, badaude beste portaera batzuk hasieran arruntak izanagatik ere problematikoa bihurtu eta adikzioen aurrekari izan daitezkeena; esaterako, modu konpulsiboan jatea edo erostea, gehiegi lan egitea edo jarduera fisikoa neurririk gabe egitea. Kautela printzipioa aintzat hartuta, legeak ezartzen du osasunaren sustapenerako eta adikzioen prebentziorako proposatutako neurriak baliagarri direla jokabide-adikzio gisa oraindik sailkatu gabeko portaera horiek ekiditeko.

Adikzioen prebentzio eta arretaren ereduaren oinarrien artean, azpimarratzekoak dira osasun publikoaren ikuspuntua eta osasunaren paradigma politika guztietan; horiekin instituzio arteko konpromisoa lortu nahi da sektorearteko eta zeharkako estrategia bat sustatzeko. Estrategia horren helburua izango da osasuna eta osasun arloko ekitatea politika publiko eta gobernu orearen xede izatea. Ikuspuntu horiek osasun publikoaren arloan normaltasunez erabiltzen dira, eta beharrezkoa da adikzioen arloan ere aintzat hartzea. Legearen beste oinarri garrantzitsu bat arriskuak eta kalteak gutxitzeko estrategia da, zeinak azken urteetan indar handia izan baitu eta egokia izan baita prebentzioak eraginik izan ez duen pertsonentzat edo osasun edo gizarte baldintzak bereziak dituzten pertsonentzat.

bro deberá tener en cuenta para realizar su propia regulación.

Pero, además de las sustancias que tradicionalmente intervienen en las conocidas como adicciones a sustancias, en los últimos años asistimos al auge de ciertos comportamientos totalmente convencionales que, realizados de forma repetida, continuada o de manera inadecuada o excesiva, pueden acarrear problemas graves y generar los mismos patrones adictivos que las drogas o sustancias.

Por ello, la nueva ley, con vocación de integridad, se refiere en su ámbito material a las adicciones e incluye, en sentido amplio, las adicciones a sustancias y las adicciones comportamentales o adicciones sin sustancia; y además, en un afán de anticiparse a la situación de dependencia, contempla los factores de riesgo precursores de las adicciones, los consumos problemáticos de sustancias, y las conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales.

El entorno nos pone en alerta ante nuevas realidades como las redes sociales, las tecnologías digitales y las nuevas aplicaciones para ellas diseñadas, los teléfonos móviles, los videojuegos, etc..., cuyo uso indebido, excesivo o abusivo puede comportar preocupación y ciertos problemas que pueden constituir los albores de una futura adicción. Consciente de que los organismos internacionales expertos en la materia están valorando considerar como adicciones las conductas excesivas que se manifiestan en el campo de las tecnologías digitales, la ley las considera susceptibles de adoptar un patrón adictivo y, por ello, las sitúa al mismo nivel que las adicciones comportamentales.

Además, en previsión de que otras conductas en principio perfectamente habituales, pueden evolucionar de modo que resulten problemáticas y precursoras de una futura adicción –como las compras y la alimentación compulsivas o el ejercicio físico o laboral desorbitados–, por un principio de cautela, la ley establece que las medidas de promoción y prevención de la salud que contempla se extiendan a otras conductas excesivas no conceptualizadas como adicciones comportamentales en el momento actual.

Entre los fundamentos básicos del modelo de prevención y atención de la ley, destacan el enfoque de salud pública y el paradigma de salud en todas las políticas, con los que se pretende alcanzar un compromiso interinstitucional que impulse una estrategia intersectorial y transversal, dirigida a hacer que la salud y la equidad en salud sean asumidas como metas de todas las políticas públicas y agentes sociales. Estos enfoques novedosos ya se manejan, no obstante, con normalidad en salud pública, siendo necesario incorporarlos expresamente al campo de las adicciones. Además, otro fundamento básico de la ley, junto con la ya referida aproximación integral de las adicciones, es la estrategia de reducción de riesgos y daños, que ha experimentado un gran auge en los últimos años y que ofrece un abanico de posibilidades muy interesantes en aquellas personas en las que otras intervencio-

Legean, lehen aldiz aitortzen dira droga kontsumitzaileen edo jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeak dituzten pertsonen esku-bideak, eta betebeharrak ere ezartzen zaizkie: ez bakarrik gizarte- edo osasun-zerbitzuen erabiltzaile gisa, baita norberaren askatasuna onartzearen aldetik ere. Hala, inor ez da baztertuko adikzio-egoeragatik eta bereziki aintzat hartuko/berariaz aitortuko da da kalamu kontsumitzaileen elkarteetako kide diren adin nagusikoen egoera. Elkarte hauek gizarte ekimenari buruzko atalean arautuko dira.

Legearen lehenengo tituluan osasunaren sustapena eta adikzioen prebentzioa arautzen dira, eta adikzioen esparruan lehentasuna duten jarduera eremu direla xedatzen da. Lehen aldiz, osasunaren sustapena arautzen da adikzioen araudi batean. Dena den, askatasun pertsonala errespetatuz, prebentzio ereduaren helburua izan behar da herritarrek kontsumoaren kulturaren aurrean jarrera aldatzea eta bizi-modu osasungarriak sustatzea, pertsona arduratsuek izan daitezkeen neurrigabeko erabilera eta portaeren aurrean. Hain zuzen ere, titulu honen pisu espezifikoa aintzat harturik, osasunaren sustapen eta adikzioen prebentzioen inguruko neurriak hedatuko zaizkie ez bakarrik adikzioei, portaera neurrigabeei ere bai; zientziaren arabera, egun, oraindik jokabide-adikziotzat hartzen ez badira ere.

Osasuna sustatzeko eta adikzioei aurrea hartzeko oinarritzeko estrategia osasunerako hezkuntza da. Osasun Publikoaren ikuspuntutik, ohitura osasungarriak eta osasunaren kultura lortzeko helburua dauka, horrela bizimodu autonomo, elkartasuneko eta askea izan ahal izateko. Hau da, norberaren ekintzek ekar ditzaketen ondorioak guztiz ezagutu ondoren, pertsonen aukeratzeko askatasuna zuzen erabiltzeko modu bakarra dago: behar bezalako orientazioa ematea osasunerako hezkuntzaren bidez, batez ere pertsonen garapenaren etapa goiztiarrenetan, orduantxe finkatzen baitira ohitura osasungarriak sostengatzen dituzten balioak. Eta osasunerako hezkuntza behar bezala bideratzean arrakasta izateko, eskola-sistema, komunikabideak –informatu eta iritzia emateko elementuak diren aldetik– eta komunitate osoa konprometitu behar dira.

Prebentzioaren arloan jasotzen dira substantzien eskaria edo portaera arriskugarri edo neurrigabeak gutxitzeko neurriak, eta erabat bereizten dira eskaintza kontrolatu edo murrizteko neurrietatik, azken horiek bigarren tituluan sartzen baitira. Orain arte indarrean egon den testuan, ordea, nahastuta agertzen ziren. Eskaria murriztea eta eskaintzaren kontrola modu bereizian banatuta jaso dira Europar Batasunak drogaren aurka egiteko 2013-2020 Estrategian, bi jardun-eremu handi horien arteko izaera desberdinarengatik; hau da, eskaria murrizteko neurriek pertsonak edo taldeak dituzte helburu, eta eskaintza kontrolatzekoek,

nes preventivas han fracasado o sus condiciones sanitarias y sociales así lo indiquen.

Es también especialmente novedoso el reconocimiento de los derechos y el establecimiento de deberes y obligaciones, no sólo como personas usuarias de los servicios sociales o de salud sino también, en aceptación de la libertad personal. Así, nadie podrá ser objeto de discriminación por razón de su circunstancia ante las adicciones, reconociéndose expresamente esta consideración para las personas mayores de edad que formen parte de entidades de consumidores y consumidoras de cannabis, entidades que son objeto de regulación en el apartado de la ley referido a la iniciativa social.

La promoción de la salud y la prevención de las adicciones, reguladas en el Título Primero de la ley, se erigen en el área de actuación preferente y prioritaria en esta materia, y es particularmente novedosa la regulación en capítulo propio de la promoción de la salud. No obstante, desde el respeto a las libertades personales, los modelos de prevención deben ir dirigidos a generar cambios de conductas en la cultura del consumo y al establecimiento de estilos de vida saludables, haciendo a las personas más responsables ante usos y conductas indebidas. Precisamente por el peso específico de este título, las medidas recogidas sobre promoción de la salud y prevención de las adicciones se extenderán a las adicciones y a aquellas otras conductas excesivas que todavía en la actualidad no se han recogido científicamente como adicciones comportamentales.

La estrategia básica de actuación para la promoción de la salud y la prevención de las adicciones es la educación para la salud que, desde el enfoque de salud pública, se dirige al logro de hábitos saludables y de la cultura de la salud como forma de vida autónoma, solidaria y libre. En efecto, la libertad de elección de las personas tras el pleno conocimiento de las consecuencias de sus actos, sólo puede ejercitarse correctamente si se ha realizado una orientación correcta mediante la educación para la salud, sobre todo en las etapas más tempranas del desarrollo de las personas, en las que se fijan los valores que sustentan los referidos hábitos de vida saludables. El éxito de una adecuada orientación de la educación para la salud no sólo compromete al sistema escolar, sino a los medios de comunicación –como elementos de información y opinión–, y a toda la comunidad.

En el área de prevención se recogen aquellas medidas dirigidas a disminuir la demanda de sustancias o conductas de riesgo o excesivas, separándolas netamente de las medidas de control o reducción de la oferta, que son objeto del Título Segundo y que en el texto hasta ahora vigente aparecían entremezcladas. La disminución de la demanda y el control de la oferta son los dos grandes ámbitos de actuación recogidos separadamente en la Estrategia de la Unión Europea en materia de lucha contra la droga 2013-2020, por la diferente naturaleza de unas y otras medidas, pues si las dirigidas a limitar la demanda ponen el énfasis

berri, substantziak edo jokabideak.

Prebentzioari buruzko kapituluak, ahalik eta eremu gehien aintzat hartuta, biztanle guztiei zuzendutako neurriak biltzen ditu, alde batetik; beste neurri batzuk arriskuan edo ahultasun egoeran dauden pertsonen edo taldeen zuzenduta, eta, gainera jokabidezkoak ez diren adikzioetarako neurri espezifikoak ere bai. Babes-neurriak sendotu eta arrisku-faktoreak murriztu nahi dira, pertsona kaltetuak bere ingurune komunitarioan normaltasunez murgilduta egon daitezten. Prebentziozko ekintzen artean lehenetsuak dira familia eremua, komunitarioa eta hezkuntzarena; hiru horiek koordinatuta egon beharko dute, esku hartzen duten gizarte eragile guzti-guztiak inplikatzeko –eskola, familia, enpresak, elkarteak eta abar–.

Familia eremuko prebentzioari dagokionez, nabaria da gurasotasun positiboaren printzipioa; familiarikiko esku-hartzearen paradigma berria da eta gurasotasunean modu positiboan aritzeko laguntza-politikari buruz Europako Kontseiluak emandako Gomendioan jasota dago. Printzipio horren arabera, gurasoen aldetik guraso-gaitasun positiboak garatu behar dira seme-alabekiko; halaber, azken horien jokabiderako mugak ezartzen dituzten balioetan oinarritutako hezkuntza garatu behar da. Afektibitate-uztarduraren balioak sendotu, ingurune egituratuak indartu, eskolako ikasketa bultzatu eta estimatu eta seme-alaben balioa aintzatetsi behar dira, norberak eragile aktibo, ahaldun eta trebatu gisa daukan haute-matea indartuz.

Eremu komunitarioan, nabaria da pertsonarengandik gertuen dauden inguruneen balio sustatzailea, eta proposatzen diren esku-hartzeetan ingurune horien guztien inplikazioa eta parte hartzea bilatzen da. Puntu honetan, garrantzizkoa da udalen zeregina, pertsonarengandik eta beraiek osatzen dituzten komunitateetatik oso gertu daudelako. Hezkuntza eremuari dagokionez, ematen zaion lehenetsuna hezkuntza sistemaren egin-behar nagusitik datorkio; hain zuzen ere, egin-behar hori ezinbestekoa da pertsonen gaitasunak eraikitzeko, batez ere garapenaren etaparik goiztiarrenetan.

Azkenik, arrisku handian dauden adingabe eta gazteei zuzendutako prebentzioari dagokionez, aipatu beharrekoak dira euren egoerara egokitutako esku-hartze eta gizarte eta hezkuntzako programak eta aholku- eta laguntza-neurriak.

Bigarren Tituluak eskaintzaren murriztea arautzen du; substantziaren arabera sailkatutako egitura aurkeztu eta, substantzia bakoitzaren barruan, horren inguruan sortutako jarduerak arautzen du; hau da, publikitate, salmenta, ematea eta kontsumoa. Ondoren, jokabide-adikzioen inguruan eskaintza kontrolatzeko arauak ezartzen dira. Kontrol-neurriak legezko drogetarako ezartzen dira, legez kanpokoak, gure autonomia erkidegoaren eskumen-eremutik kanpo dagoen zigor edo administrazio araudiaren helburu baitira. Titulu honetan kontuan hartu behar da batzuetan neu-

en la actuación sobre las personas o grupos, las de la oferta actúan sobre las sustancias o sobre las conductas.

El capítulo dedicado a la prevención recoge, en todos los ámbitos posibles, medidas generales dirigidas al conjunto de la población, otras dirigidas a personas o grupos en situación de riesgo o de mayor vulnerabilidad, y además medidas específicas para las adicciones no comportamentales. Se trata de potenciar los factores de protección y reducir los factores de riesgo, facilitando la inclusión normalizada de las personas afectadas en su entorno comunitario. En las actuaciones preventivas son prioritarios el ámbito familiar, el comunitario y el educativo, que deberán coordinarse para implicar a todos los agentes sociales intervinientes como la escuela, familia, empresas, asociaciones, etcétera...

En la prevención en el ámbito familiar destaca el principio de parentalidad positiva, nuevo paradigma de intervención psicosocial con las familias, contenido en la Recomendación del Consejo de Europa sobre política de apoyo al ejercicio positivo de la parentalidad. Este principio supone el desarrollo de habilidades parentales positivas para con los hijos e hijas por parte de los padres y las madres, y la educación en valores que fijen los límites de su comportamiento. Se trata de impulsar los valores de vinculación afectiva, el fortalecimiento de entornos estructurados, la estimulación y apoyo al aprendizaje escolar, y el reconocimiento del valor de los hijos e hijas, potenciando su propia percepción como agentes en activo, competentes y capaces.

Por lo que respecta al ámbito comunitario, se destaca el valor propulsor de aquellos entornos más cercanos a la persona, buscando la implicación y la participación de todos ellos en las intervenciones propuestas; en este punto, es relevante el papel de los ayuntamientos por su cercanía a las personas y a las comunidades de las que forman parte. Respecto del ámbito educativo, su valor preferente deriva del papel predominante del sistema educativo en la construcción de las competencias de las personas, sobre todo en las etapas más tempranas de su desarrollo.

Finalmente, en relación a la prevención respecto de menores y jóvenes en situación de alto riesgo, se destacan las intervenciones y los programas socio-educativos específicos, de asesoramiento y apoyo e intervenciones adaptadas a su situación.

El Título Segundo, que regula la reducción de la oferta, presenta una estructura clasificada por la sustancia, y dentro de cada una, regula la actividad generada en torno a ella; esto es, la publicidad, venta suministro y consumo; después se establecen las normas sobre control de la oferta respecto de las adicciones comportamentales. Las drogas sobre las que se establecen las medidas de control son las legales, pues las ilegales son objeto de normativa penal o administrativa que queda fuera del ámbito competencial de esta Comunidad Autónoma. En este título, hay

rri murriztaileak arautzen direla gure autonomia erki-degoaren ekonomian sektore estrategikoa osatzen duten jardueretan; oreka-puntua aurkitu behar da, beraz, enpresa-askatasunari jarritako mugen eta babestu nahi diren interesen artean, bereziki adingabeei eragiten dietenean.

Lehenik eta behin, edari alkoholodunei ezarritako mugak arautzen dira. Legeak zientzia-komunitatearen gomendioak bereganatzen ditu; hain zuzen ere, alkoholaren kontsumoa murriztu behar dela adingabe eta gazteen artean. Eta egun indarrean dagoena baino araubide murriztaileagoa eratzten du.

Tabakoari dagokionez, datu zientifiko ugariak esaten digute tabako-keak kutsatutako ingurunea arriskugarria dela baita erretzen ez duten pertsonentzat ere. Hori dela eta, tabakismoaren aurkako osasun neurriak ezarri eta tabako-produktuen salmenta, emate, kontsumo eta publizitatea arautzen dituen abenduaren 26ko 28/2005 Legea oinarritzat harturik, egun indarrean daudenak baino neurri murriztaileagoak ezartzen dira, erretzen ez duten pertsonen osasuna babesteko eskubidearen alde.

Nikotina aska dezaketen gailuak ere arautzen dira. Osasunaren Mundu Erakundearen eta osasun-profesionalen gomendioei jarraiki, arrazoizko dirudi kontuan hartzeak gailu horien ondorioak tabakoarenak bezalakoak direla bai erabiltzailearentzat bai beste pertsona batzuentzat; hori dela eta, lege honek parean jarri du horrelako gailuak kontrolatzeko errejimena eta tabakoarena, ondorio guztietarako, gure inguruko herrialde batzuetan egin den moduan –haietan gailu hauei buruzko araudia tabakoarena bezain zorrotza da–.

Jokabide-adikzioei dagokionez, ez da zigor-neurririk ezarri, eskaintza gutxitzeko ekintzak baizik. Horien bidez, ausazko jokoak eta teknologia berriak arduraz erabiltzea sustatu nahi da. Ludopatien kasuan, sektore-araudira igortzen da, eta jokoan –aurrez aurrekoan zein on-linekoan– erantzukizunez aritzeko kontrol-neurriak ezartzea proposatzen da. Eta teknologia digitalei dagokionez, eskaintzan neurritasunez jokatzearen balioak sustatu nahi dira. Izan ere, kriminalizatu baino gehiago, kontzientziatu, mentalizatu egin nahi da, jarrerak aldatzen laguntzeko.

Hirugarren Tituluan –Arreta Sanitario eta Sozio-sanitarioa– adikzioak dituzten pertsonen edo jasateko arriskuan daudenei eman beharreko arreta arautzen da. Pertsonen beharrezanetan, normalizazioan eta gizarteratze eraginkorrean zentratutako arreta integrala emango zaie erabiltzaileei. Asistentziarako irizpide moduan, osasun-sarean eta sare soziosanitario publi-

que tener en cuenta que en algunas ocasiones se contemplan medidas restrictivas respecto de actividades que son un sector estratégico de la economía de nuestra Comunidad Autónoma, por lo que es preciso encontrar un punto de equilibrio entre la limitación de la libertad de empresa y el interés que se pretende salvaguardar, sobre todo cuando afecta a personas menores de edad.

Aparece en primer lugar la regulación relativa a las limitaciones en materia de bebidas alcohólicas. La ley hace suyas las recomendaciones de la comunidad científica, que señala la necesidad de reducir el acceso de las personas menores y jóvenes al consumo de alcohol y configura un régimen más restrictivo respecto del vigente hasta el día de hoy.

Por lo que respecta al tabaco, existen datos científicos sobre los riesgos para la salud en la población no fumadora vinculados a la contaminación ambiental por humo de tabaco. Por ello, y partiendo de la Ley 28/ 2005 de medidas sanitarias frente al tabaquismo y reguladora de la venta, el suministro, el consumo y la publicidad de los productos de tabaco, se arbitran medidas más restrictivas que las hasta ahora vigentes para preservar el derecho a la protección de la salud de estas personas no fumadoras.

Por lo que respecta a los dispositivos susceptibles de liberación de nicotina, y siguiendo las recomendaciones de la Organización Mundial de la Salud y de las y los profesionales de la salud, parece razonable considerar que, cuando el dispositivo es susceptible de liberar nicotina, sus efectos tanto para la persona usuaria como para terceras personas no difieran del tabaco, y por ello esta ley ha equiparado su régimen de control al establecido para el tabaco con todas sus consecuencias, tal y como se ha hecho en otros países de nuestro entorno, donde la normativa es igual de estricta que con el tabaco.

En relación a las adicciones comportamentales, no se han establecido medidas punitivas, sino acciones de reducción de la oferta, con las que se trata de adoptar medidas tendentes a impulsar un uso responsable de los juegos de azar y de las nuevas tecnologías. En el caso de las ludopatías, se hace una remisión a la normativa sectorial y se promueve la adopción de medidas de control orientadas al enfoque de responsabilidad en el juego, tanto presencial como on line; y respecto de las tecnologías digitales, las medidas de control se orientan a introducir valores de moderación en la oferta. En efecto, se trata, más que de criminalizar, de concienciar, mentalizar socialmente sobre las consecuencias de este fenómeno para provocar un cambio de actitudes.

El Título Tercero, referido a la asistencia sanitaria y socio-sanitaria, regula la atención a las personas con adicciones o en riesgo de padecerlas. Se trata de ofrecer una atención integral a las personas usuarias, centrada en sus necesidades, en la normalización y en la inclusión social efectiva. Recogiendo los criterios en la prestación de asistencia, se señala la integración de



koan sartzen dira adikzioak dituzten edo pairatzeko arriskuan dauden pertsonen arretari zuzendutako zerbitzu eta ekipamenduak.

Laugarren Titulua –Gizarteratzea– bereizita dago arreta sanitario eta soziosanitariotik zeren, kasu honetan, jarduera-printzipio propioak dituen beste sistema publiko bat baita gidari. Gizarteratzeak, tes-tuinguru komunitarioaren esparruan, honako bi oinarri hauek ditu: batetik, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema, lehen mailako arretan edo bigarren mailakoan diharduten gizarte-zerbitzuen bitartez, eta, bestetik, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Euskal Sistema, oinarrizko premia ekonomikoei eta gizarteratze eta laneratze beharrei erantzuteko.

Bosgarren titulua –Ezagutzaren Garapen eta Kudeaketa– izaera berezia dauka testu berri honetan eta, orain arte indarrean egondakoan ez bezala, prebentziotik banantzen da. Ikerketa, informazioa eta ebaluaketa zeharkako jardueratzat hartzen dira, Drogaren aurkako Europar Batasunaren 2013-2020 Estrategiari jarraiki. Osasun, gizarte, hezkuntza eta lan arloetako administrazioek informazio lanak egingo dituzte adikzioen arloan. Oinarrizko eta espezializatu-tako trebakuntza-jarduerak eraten dira, adikzioekin zerikusia duten profesionalei zuzentzen zaizkielarik. Ikerketa ezinbesteko tresnatzat hartuko da adikzioen fenomeno konplexuei eraginkortasunez aurre egiteko –horretarako, ikerketa sustatzen duten neurriak ezarriko dira profesionalek arlo honetan azterlanak egiteko– eta Adikzioen Behatokia arautzeko informazio zerbitzu zentralizatua izan dadin. Halaber, adikzioen arloko programa publikoen ebaluaketak jasotzen ditu legeak. Azkenik, sariak edo bestelako merezimenduak sor daitezke, arlo honetan egindako lanarengatik erakunde eta pertsoneri esker ona adierazteko.

Seigarren Titulua Erakunde-antolamendua, Koordinazioa, Plangintza eta Gizarte-ekimena arautzen ditu eta euskal administrazio publiko bakoitzari dagozkion eskumenak banatzen ditu, kasu bakoitzean ezarri beharreko sektore-araudiari jarraiki, administrazio bakoitzak egun arte garatu dituen terminoetan eta legeak arautzen dituen sektore eta arlo estrategiko guztietan (hau da, osasunaren sustapen, prebentzio, asistentzia eta gizarteratze, adikzioen arloko prestakuntza eta ikerketan). Horrez gain, administrazio batzuen aldetik bikoiztasunak eta gainezarpenak saihestu nahi dira. Eskumen bera batera erabiltzen den kasuetan aurre hartzeko oinarrizko tresna administrazioen arteko lankidetzarako hitzarmenak izango dira.

Eskumena duten herri-administrazioen plangintzarako tresnak, izaera estrategikoa dutenez, ezinbestekoak dira lege honek markaturiko helburuak lortzeko. EAEko Adikzioen Plana agiri zuzentzailea da, eta modu

los servicios y equipamientos destinados a la atención de las personas con adicciones o en riesgo de padecerlas en los recursos de la red sanitaria y sociosanitaria pública.

El Título Cuarto, inclusión social, aparece con entidad propia y separada de la atención sanitaria y sociosanitaria, puesto que la actuación en este caso se lleva a cabo por otro sistema público diferenciado y con principios de actuación propios. La inclusión social, enmarcada en un contexto comunitario, se fundamenta en el Sistema Vasco de Servicios Sociales, a través de los servicios sociales de atención primaria o de atención secundaria, y en el Sistema Vasco para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, para dar respuesta a las necesidades económicas básicas y las necesidades de inclusión social y laboral.

El Título Quinto sobre desarrollo y gestión del conocimiento adquiere entidad propia y, a diferencia de la regulación hasta ahora vigente, se regula separadamente de la prevención. La investigación, la información y la evaluación tienen la consideración de actuación transversal, según la Estrategia de la Unión Europea en materia de lucha contra la droga 2013-2020. Se prevén labores de información en materia de adicciones por parte de la administración sanitaria, social, educativa y laboral. Se articulan actividades de formación, básica o especializada dirigida a cualquier persona cuya actividad profesional se relacione con las adicciones. La investigación se contempla como una herramienta imprescindible para abordar eficazmente el complejo fenómeno de las adicciones, estableciéndose por ello medidas que la impulsen, facilitando que las y los diferentes profesionales desarrollen estudios sobre la materia, y regulando el Observatorio sobre Adicciones como servicio centralizado de información. Finalmente, se contempla la evaluación de los programas públicos en materia de adicciones, y la posibilidad de crear premios u otras distinciones honoríficas para reconocer públicamente a entidades y personas que hayan destacado por su labor en este ámbito.

| <p>d) Baldintzak sortzea, pertsonak eta gizarteak aukerarik osasungarrienak hartzeko aukera izan dezaten.</p> <p>e) Esku hartzea babes- edo arrisku-faktoreetan eta horien gizarte-, ingurumen- eta ekonomia-determinatzaileetan.</p> <p>f) Ohitura eta bizi-estilo osasungarrien sustapena txertatzea lehen mailako arretaren praktika klinikoan, bereziki alkohol eta tabakoari dagokienez.</p> <p>g) Osasun mentala sendotu eta babesten duten esku-hartzeak bideratzea, ikuspuntu positibo batetik.</p> <p>h) Osasunaren sustapenean esku hartzeko programak eta jarduerak eraginkorrak diren ebaluatzea.</p> | <p>d) Creación de las condiciones que faciliten a las personas y a la sociedad la elección de las opciones más saludables.</p> <p>e) Intervención sobre los factores protectores o de riesgo y sobre sus determinantes sociales, ambientales y económicos.</p> <p>f) Integración de la promoción de hábitos y estilos de vida saludables en la práctica clínica de la atención primaria, especialmente en lo relativo al alcohol y al tabaco.</p> <p>g) Fomento de intervenciones de promoción que fortalezcan y protejan la salud mental, desde una perspectiva positiva.</p> <p>h) Evaluación de la efectividad de los programas y actuaciones de intervención en promoción de la salud.</p> |
|---|--|
2. Adikzioen esparruan osasuna sustatzeko garrantzen diren jarduerak herritar guztiei zuzenduko zaizkie, eta arreta berezia jarriko da adin txiki-koengan eta gazteengan eta pertsona eta kolektiborik ahulenetan.
2. Las actuaciones de promoción de la salud en el ámbito de las adicciones se dirigirán al conjunto de la población y prestarán especial atención a las personas menores de edad y jóvenes, así como a las personas y colectivos sociales más vulnerables.

### **Bigarren kapitulua Adikzioen prebentzioa**

#### **13. artikulua. Adikzioen prebentzioa**

1. Lege honen esparruan, prebentzio neurriak aplikatuko zaizkie adikzioei, horien aurrekari diren arrisku-faktoreei, kontsumo problematikoei eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeei.
2. Administrazio publikoek prebentziozko neurriak ezarriko dituzte, dagozkien eskumenen esparruan eta, oso bereziki, osasunaren, gizarte-zerbitzuen eta hezkuntzaren sistemetan, herritarak sentsibilizatu eta informatzeko:
- |  |   |
|--|---|
| <p>a) Adikzioen gizarte-fenomenoari buruz.</p> <p>b) Zenbait portaeraren ahalmen adiktiboari buruz eta, era berezian, ausazko jokoe-tan gehiegi aritzeak eta teknologia digi-talek dutenari buruz</p> <p>c) Horiek guztiek dituzten ezaugarri eta ondorio kaltegarriari buruz.</p> | <p>a) Sobre el fenómeno social de las adicciones.</p> <p>b) Sobre el potencial adictivo de determinadas conductas, en particular la dedicación excesiva a los juegos de azar y a las tecnologías digitales y a sus nuevas aplicaciones.</p> <p>c) Sobre las características y consecuencias perjudiciales de todos ellos.</p> |
|--|---|
3. Botere publikoek, haiei dagozkien jardueraren barruan, prebentziozko jarduerak bultzatuko dituzte adikzioetan eragiten duten bizi-

### **CAPÍTULO SEGUNDO PREVENCIÓN DE LAS ADICCIONES**

#### **Artículo 13. Prevención de las adicciones**

1. En el marco de esta ley, las medidas de prevención se aplicarán a las adicciones, a los factores de riesgo precursores de las anteriores, los consumos problemáticos y las conductas excesivas susceptibles de generar adicciones comportamentales.
2. Las administraciones públicas adoptarán, en el ámbito de sus respectivas competencias, y muy especialmente en el sistema de salud, en el de los servicios sociales y en el educativo, medidas preventivas orientadas a la sensibilización e información de la población:
- |   |   |
|---|---|
| <p>a) Sobre el fenómeno social de las adicciones.</p> <p>b) Sobre el potencial adictivo de determinadas conductas, en particular la dedicación excesiva a los juegos de azar y a las tecnologías digitales y a sus nuevas aplicaciones.</p> <p>c) Sobre las características y consecuencias perjudiciales de todos ellos.</p> | <p>a) Sobre el fenómeno social de las adicciones.</p> <p>b) Sobre el potencial adictivo de determinadas conductas, en particular la dedicación excesiva a los juegos de azar y a las tecnologías digitales y a sus nuevas aplicaciones.</p> <p>c) Sobre las características y consecuencias perjudiciales de todos ellos.</p> |
|---|---|
3. Los poderes públicos, dentro de los ámbitos de actuación que les correspondan, potenciarán intervenciones preventivas para mejorar las

baldintzak hobetzeko eta gizarte-bazterkeria egoerara eramaten duten faktore pertsonalak, familiarak edo sozialak gainditzeko eta egoera horrek eragiten dien pertsonak era normalizatu gizarteratu daitezzen errazteko.

2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legean xedatutakoaren arabera –Gizarte Zerbitzuei buruzko Legea– lehentasunezko jardueraren eremutzat joko dira bazterketa sortzen duten egiturazko kausak aztertu eta prebenitzera, herritarren beren ingurune pertsonal, familiar eta sozialean integratzera eta gizarte-normalizazioa sustatzera zuzentzen diren gizarte-zerbitzuen jarduerak, eta bultzatu egingo dira gizarte-zerbitzuen programen barruan.

4. Lege honen 9. artikuluan osasunerako hezkuntzaren arloan ezarritako helburu orokorrak osatzeko, osasun publikoko zerbitzuek eta lehen mailako arretakoek prebentzioz jardungo dute, eremu komunitarioko eragileekin batera, bizi-ohitura osasungarriak bultzatzeko estrategiak eta programak eginez, informazioa emateko ekintzak burutuz eta ohitura desegokiak eta neurrigabekoak garai antzemateko eta aldatzeko kanpainak eginez.
5. Prebentziozko jarduerak herritar guztiei zuzenduko zaizkie, bizitzako etapa guztietan; bereziki, arreta berezia jarriko zaie arrisku-faktoreak izan ditzaketen pertsonen eta taldeen, adin txikikoen eta gazteen, eta egoera ahulenetan bizi diren pertsona eta taldeen.
6. Prebentziozko jardueretan, lehentasuna izango dute familia-, komunitate- eta hezkuntza-eremuek. Elkarrekin aritu beharko dute lanean, bai eta gizarte-eragileekin ere, aplikatu beharreko neurriak benetan eraginkorrak izan daitezzen.

#### 14. artikulua. Helburuak, adikzioen prebentzioaren esparruan

Lege honen eremuan egingo den prebentziozko jarduna helburu hauek lortzera bideratuko da:

- a) Babes-faktoreak hedatzea eta indartzea, adikzioa sor dezaketen kontsumo problematikoak eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeak agertzea eragozten baitute.
- b) Norbanakoarengan, familian, lan-eremuan eta ingurumenean kalteak eragin ditzaketen arrisku-faktoreak ezabatzea edo gutxitzea.

condiciones de vida, superar los factores personales, familiares o sociales de exclusión que inciden en las adicciones, y para facilitar la inclusión normalizada de las personas afectadas en su entorno comunitario.

Según lo establecido en la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales, las actuaciones de éstos que se dirijan al análisis y a la prevención de las causas estructurales que originan la exclusión, a la integración de la ciudadanía en su entorno personal, familiar y social, y a la promoción de la normalización social, se considerarán como áreas de actuación preferente y deberán ser potenciadas dentro de los programas de servicios sociales existentes.

4. De forma complementaria a los objetivos generales en materia de educación para la salud establecidas en el artículo 9 de la presente ley, los servicios de salud pública y de atención primaria de salud actuarán preventivamente, en coordinación con los agentes del ámbito comunitario, mediante estrategias y programas para promover hábitos de vida saludable, así como acciones informativas, campañas de detección precoz y modificación de hábitos inadecuados o abusivos.
5. Las actuaciones de prevención se dirigirán al conjunto de la población en todas las etapas de la vida y, en particular, serán objeto de especial atención las personas y grupos expuestos a factores de riesgo, las personas menores de edad y jóvenes y las personas y colectivos de población en situación de mayor vulnerabilidad.
6. Los ámbitos prioritarios de actuación preventiva serán el familiar, comunitario y educativo, que deberán coordinarse entre sí y con las y los agentes sociales, sobre todo comunitarios, para la efectiva eficacia de las medidas a aplicar.

#### Artículo 14. Objetivos en el ámbito de la prevención de adicciones

La acción preventiva desarrollada en el ámbito de la presente Ley se orientará a la consecución de los siguientes objetivos:

- a) Extender y fortalecer los factores de protección como inhibidores de los consumos problemáticos de sustancias con capacidad adictiva y de la aparición de conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales.
- b) Eliminar o, en su caso, minimizar los factores de riesgo capaces de generar daños específicos de carácter individual, familiar, laboral y del entorno.



- |    |   |    |  |
|----|---|----|--|
| c) | Adikzioa eragin dezaketen substantziak kontsumitzen hasten den adina ahalik eta gehien atzeratzea, bai eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeak garatzen hasten den adina ere.          | c) | Retrasar al máximo la edad de inicio del consumo de sustancias con capacidad adictiva, así como del desarrollo de conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales.                         |
| d) | Desagerraraztea edo mugatzea substantzien kontsumoa, eta jokabide adikzio-eragileen garapena, bai eta arrisku handiko egoeretan jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten neurrigabeko beste portaera batzuen ere. | d) | Eliminar y, en su caso, limitar los consumos de sustancias y el desarrollo de conductas adictivas y otras conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales ante situaciones de alto riesgo. |
| e) | Kontsumo eta jokabideak neurri ekartzeko eta erantzukizunez jokatzeo jarraibideak sustatzea, horiek, neurrigabeak direnean, adikzioak sortzeko arriskua baitakarte.   | e) | Promover la adopción de pautas de moderación y responsabilidad en conductas y consumos que, cuando son excesivos, presentan el riesgo de generar adicciones.   |

### 15. artikulua. Prebentzioa familiaren esparruan

1. Familia funtsezko elementua da seme-alaben hezkuntzan eta heziketan, eta, bereziki, estrategiak, balioak, trebetasunak eta gaitasunak transmititzeko; horrenbestez, oinarritzko zutabea da adikzioak prebenitzeko, bai eta haien aurrerari diren arrisku-faktoreak, substantzien kontsumo problematikoak eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen portaera neurrigabeak prebenitzeko ere.
2. Euskal administrazio publikoek, haien eskumenak gauzatzean, garatzen dituzten prebentziozko esku-hartzeetan, bereziki babestuko dute familia, honetarako:
  - a) Familiaren hezkuntza- eta kudeaketa-gaitasunak hobetzeko.
  - b) Familia-guneak adikzioen eraginari eta kontsumoari aurre egiteko duen erresistentzia indartzeko.
  - c) Arrisku-faktoreak gutxitzeko eta seme-alabengan drogen kontsumoari aurre egiteko babes-faktoreak ugaritzeko. Horrela, familiak prebentzio-eragile gisa duen zeregina sendotu nahi da, bereziki adingabeak eta gazteak dituzten familia.
3. Administrazio publikoek lankidetzan eta koordinaziozko bide eraginkorrak eratuko dituzte, eskumenak dituzten erakunde publiko guztiak, gurasoen elkarteak eta jarduera-eremu honetan diharduten entitate pribatu guztiak aintzat hartuta.
4. Prebentzio-neurri hauek ezarriko dira:
  - a) Familiei zuzendutako adikzioen arloko sentsibilizazio-, informazio-, trebakuntza-, orientazio-, aholkularitza- eta esku-hartze

### Artículo 15. Prevención en el ámbito familiar

1. La familia, como elemento fundamental en la educación y formación de los hijos e hijas y, concretamente, para la transmisión de estrategias, valores, habilidades y competencias, es pilar básico de la prevención de las adicciones, y de los factores de riesgo precursores de las anteriores, los consumos problemáticos de sustancias y las conductas excesivas susceptibles de generar adicciones comportamentales.
2. En el marco de la intervención preventiva desarrollada por las administraciones públicas vascas en el ejercicio de sus respectivas competencias, la familia será objeto de especial protección, con el fin de:
  - a) Mejorar las competencias educativas y de gestión familiar.
  - b) Reforzar la resistencia del núcleo familiar a la exposición y el consumo.
  - c) Reducir los factores de riesgo e incrementar en las hijas e hijos los factores de protección frente a los consumos problemáticos de sustancias, reforzando así la función de la familia como agente de prevención, en especial en el caso de las familias que cuentan con personas menores y jóvenes.
3. Las administraciones públicas procurarán el establecimiento efectivo de cauces de colaboración y coordinación eficientes entre todos los organismos públicos competentes, asociaciones de padres y madres, y entidades privadas que intervienen en este ámbito de actuación.
4. Se arbitrarán las siguientes medidas de prevención:
  - a) actuaciones de sensibilización, información, formación, orientación, asesoramiento, e intervención psicoeducativa o

- psikohezkuntzako edo psikosozialeko jarduerak. Jarduera horiei esku-hartze komunitarioaren bidez utsiko zaie.
- b) Jokabide adikzio-eragileei eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua dakarten jokabide neurrigabeei dagokienez, helburu hauek ezarriko dira:
- b.1 Jokabide-adikzioei buruzko ezagutza hobetzea, jokabide-adikzioak sor ditzaketen zenbait jokabideren bilakaera-patroia ezagutzeko eta jokabide horiek bai jasaten dituen pertsonarentzat bai bere familia-arentzat zer ondorio kaltegarri dituen ikusteko.
- b.2 Gurasoak edo erreferentziazko beste heldu batzuk teknologien arloan gaitzeko edo alfabetatzeko ekimenak bultzatzea, teknologia digitalen eta horien aplikazio berrienen erabilera arduratsua, orekatua eta segurua sustatu dezaten.
- c) Gurasoak beren seme-alaben heziketan inplikatzeko baldintzak hobetzeko jarduerak egitea eta familiako bizitza eta lanbidea bateratzen laguntzea.
- d) Gurasoei zuzendutako prebentziozko esku-hartzeak hobetzeko jarduerak, hezkuntza-eredu berriak garatuta.
- e) Arrisku-egoeran dauden familiei zuzendutako neurriak. Hain zuzen ere:
- e.1 Osasun mentaleko zerbitzuen esku-hartzeak, gaitz kroniko edo behin behinekoak dituztelako ahultasun-egoeran dauden pertsonen gurasoen gaitasunak indartzeko.
- e.2 Gizarte-zerbitzuen esku-hartzea familietan, gizarte-arriskua badago.
- e.3 Familia-hezkuntza, gurasoei edo erreferentziazko beste heldu batzuei berariazko gaitasun eta trebetasunak emateko, honetarako:
- e.3.a) Jokabide orekatu eta neurritsuak izan eta sustatzea, jokabide-adikzioak sortzeko arriskua
- psicosocial sobre las adicciones dirigidas al conjunto de familias, así como el mantenimiento de las mismas a través de la intervención comunitaria.
- b) en el caso de las conductas adictivas y de las conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales, las medidas estarán orientadas a:
- b.1 Mejorar el conocimiento sobre las adicciones comportamentales, sobre el patrón evolutivo de ciertas conductas que pueden conducir a ellas, y sobre las consecuencias perjudiciales de dichas conductas, tanto para la persona que las presenta como para su entorno familiar directo.
- b.2 Impulsar iniciativas orientadas a la capacitación o alfabetización tecnológica de padres y madres u otras personas adultas de referencia, con el fin de que puedan promover un uso responsable, equilibrado y seguro de las tecnologías digitales y de sus nuevas aplicaciones.
- c) actuaciones para mejorar las condiciones de implicación de padres y madres en la educación de hijas e hijos, y favorecer la conciliación de la vida profesional y familiar.
- d) actuaciones para mejora de las intervenciones preventivas para padres y madres desarrollando nuevos modelos formativos.
- e) Medidas dirigidas a familias que se encuentran en situación de riesgo:
- e.1 Intervención desde los servicios de salud mental orientadas a reforzar las competencias parentales de personas en situación de vulnerabilidad debido a la presencia de trastornos crónicos o transitorios.
- e.2 Intervención familiar por parte de los servicios sociales en casos de riesgo social.
- e.3 Educación familiar orientada a dotar a las madres y padres u otras personas adultas de referencia de capacidades y habilidades específicas para:
- e.3.a) Adoptar y promover conductas equilibradas y moderadas en relación con todas las conduc-





dakarten neurrigabeko portaera guztiei aurre egiteko.

e.3.b) Seme-alabengan jarrera eta portaera orekatu eta neurritsuak sustatzea.

e.3.c) Seme-alabengan portaera neurrigabeak detektatzea.

e.3.d) Seme-alaben portaera neurrigabeak neurrizko patroï batera bideratzea.

tas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales.

e.3.b) Promover en sus hijas e hijos actitudes y conductas equilibradas y moderadas.

e.3.c) Detectar en sus hijos e hijas conductas excesivas.

e.3.d) Reconducir conductas excesivas de sus hijos e hijas hacia un patrón de moderación.

5. Familia-esparruan ezarritako prebentziozko jarduera guztiak gurasotasun positiboaren printzipioan oinarrituko dira, seme-alaben interes gorena aintzat hartuta; hau da, oinarriak izango dira ahalmenen indartze aktiboa, ingurune egituratua, seme-alabak aintzat hartzea, indarke-riarik eza eta jokabidearen orientazioa, semea- ren edo alabaren garapen osoa ziurtatzeko.

5. Todas las actuaciones preventivas adoptadas en el ámbito familiar se inspirarán en el principio de parentalidad positiva, en aras al interés superior del hijo o hija, fundamentado en el refuerzo activo de sus capacidades, el entorno estructurado, su reconocimiento, la no violencia y la orientación de su comportamiento para posibilitar su pleno desarrollo.

#### 16. artikulua. Prebentzioa esparru komunitarioan

#### Artículo 16. Prevención en el ámbito comunitario

1. Prebentzioa lehenetsuneko izango da esparru komunitarioan, esparru honetako baliabide eta pertsonak (ikastetxeek, gizarte- eta kultura-zerbitzuek, gazte-, kultura- eta boluntariotza-elkarteek, denbora librekoek, kirol-elkarteek, profesionalen kolektiboek eta lantokiak) ahalmen handia dutelako herritarrengan edo interes handiena duten taldeetan eragiteko.
2. Komunitatearen esparruko prebentzioa batez ere udalek eta mankomunitateek egingo dute, pertsona eta komunitateari eskaintzen dizkieten zerbitzuen hurbiltasuna dela eta.
3. Prebentzio komunitarioaren arloko jarduerak:
  - a) Komunitateko administrazio publikoen, elkarten eta gizarte-erakundeen parte hartzea eta benetako inplikazioa sustatuko dute.
  - b) Erraztasunak emango dituzte osasun- eta gizarte-zerbitzuek, gurasoen elkarteek eta beste gizarte-entitate batzuek era koordinatuan jardun dezaten, hezkuntza-trebetasunak sustatzeko, gurasoen gaitasunak areagotzeko eta familiek eskola eta komunitateko jardueretan parte hartzeko.
  - c) Trebetasun pertsonalak eta bizikidetzakoak indartuko dituzte, lanbide-heziketa, laneratze eta zerbitzu soziokulturalen inguruko politika orokor bat esparru hartuta.

1. La prevención en el ámbito comunitario será prioritaria, pues comprende aquellos recursos y personas que mayor influencia tienen sobre la población o sus grupos de mayor interés como centros educativos, servicios socioculturales, asociaciones juveniles y de voluntariado, culturales, de tiempo libre y deportivas, colectivos de profesionales y centros de trabajo.
2. La prevención en el ámbito comunitario se desarrollará preferentemente por parte de los ayuntamientos y mancomunidades, por la cercanía de los servicios que prestan a las personas y a las comunidades de las que forman parte.
3. Las actuaciones en materia de prevención comunitaria:
  - a) Promoverán la implicación efectiva y la participación de las administraciones públicas, organizaciones y entidades sociales de la propia comunidad.
  - b) Favorecerán las actuaciones coordinadas entre los servicios sanitarios y sociales, las asociaciones de padres y madres y otras entidades sociales, dirigidas a fomentar las habilidades educativas, a incrementar la competencia de los padres y las madres, y a promover la implicación de la familia en las actividades escolares y comunitarias.
  - c) Potenciarán la mejora de las habilidades personales y de convivencia en el marco de una política global de formación profesional, ocupación y servicios socioculturales.

- d) Zainduko dute ekipamendu eta zerbitzu soziokulturalen plangintzan oreka eta aukera berdintasuna era egokian jasozten dela komunitate osoan.
4. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, eremu komunitarioan prebentzio-neurri hauek hartuko dira, besteak beste:
- a) Herritar guztiei zuzendutako esku-hartzeak eta, bereziki, adingabe eta gazteei zuzendutakoak, adikzioen inguruan sensibilizatu eta informatzeko. Tokiko komunikabideetan eta teknologia digitalen eta haien aplikazio berrien bidez egingo dira esku-hartzeak.
- b) Portaera adikzio-eragileak edo jokabide-adikzioak sor ditzaketen jokoera neurri-gabeak badaude, informazio- eta sensibilizazio-ekintzak egingo dira, honako helburu hauekin:
- a) jokabide-adikzioen izaerari buruzko ezagutza hobetzeko, batez ere fenomenoak toki-mailan duen garrantziari dagokionez;
- b) neurri gabeko zenbait portaeren eboluzioa hobeto ezagutzeko;
- c) eta portaera horiek dituen pertsonarentzat eta haren familiarentzat izan ditzakeen ondorio kaltegarriak hobeto ezagutzeko.
- c) Joko arduraturako neurri eta programak indartzea, joko- eta ostalaritza-establezimenduekin lankidetzan.
- d) Velarán para que la planificación de equipamientos y servicios socio-culturales contemple el adecuado equilibrio e igualdad de oportunidades en el conjunto de la comunidad.
4. A efectos de lo previsto en el párrafo anterior, en el ámbito comunitario se arbitrarán, entre otras, las siguientes medidas de prevención:
- a) intervenciones dirigidas al conjunto de la población, así como otras dirigidas específicamente a personas menores de edad y jóvenes, orientadas a sensibilizar e informar acerca de las adicciones, vehiculadas a través de los medios de comunicación locales y de las tecnologías digitales y de sus nuevas aplicaciones.
- b) en el caso de las conductas adictivas o excesivas susceptibles de generar adicciones comportamentales, se llevarán a cabo acciones de información y sensibilización, orientadas a mejorar el conocimiento con respecto:
- a) a lo que son y a lo que no son las adicciones comportamentales, especialmente en la dimensión del fenómeno a nivel local.
- b) al patrón evolutivo de ciertas conductas excesivas.
- c) a las consecuencias perjudiciales para la persona que las presenta y para su entorno familiar directo.
- c) reforzamiento de las medidas y programas de juego responsable, en colaboración con los establecimientos de juego y con los establecimientos de hostelería.

### 17. artikulua. Prebentzioa hezkuntzaren esparruan

1. Eskola-eremua funtsezkoa da pertsonak, haurtzarotik eta gaztarotik, bere osasun eta ongizateari lotutako gaitasun egokiak garatu ditzan, era eraikitzailean eta norberarekin eta besteekiko modu begirunetsuan. Hori dela eta, hezkuntza-esparrua funtsezko zutabea da prebentziozko jardueretan.
2. Horregatik, honako prebentzio-neurri hauek hartuko dira, ez une zehatz batean egitekoak bakarrik, baizik eta ikasturte osoan zehar batez ere:
- a) Hezkuntza komunitateko sektoreei zuzendutako neurriak:

### Artículo 17. Prevención en el ámbito educativo

1. El ámbito educativo constituye un pilar básico en las actuaciones preventivas, dado que el medio escolar es fundamental para que la persona, desde sus etapas infantiles y juveniles, llegue a desarrollar competencias sobre cuestiones relativas a su salud y bienestar de forma constructiva y respetuosa hacia sí misma y hacia las otras personas.
2. Por todo ello, se arbitrarán las siguientes medidas de prevención, a desarrollar no solo con carácter puntual sino preferentemente a lo largo del curso escolar:
- a) Medidas dirigidas a los diferentes sectores de la comunidad educativa:



1. Adin guztietako ikasleak informatu eta sentsibilizatzea substantzien kontsumoari eta neurrigabeko portaerei lotutako arriskuei buruz, arlo hauetan: ausazko jokoak, teknologia digitalen erabilera (Internet, gizarte-sareak, bideojokoak, telefonia mugikorra) eta horien aplikazio berriak, elikadura, erosketak, sexualitatea, arriketa fisikoa eta gorputzeko estetikarekin erlazioatutako beste portaera batzuk.

2. Curriculumean adikzioei buruzko gaiak sartzea, jokabide-adikzio bihur daitezkeen portaera neurrigabeak saihesteko. Bereziki sustatuko da komunikazio-teknologia berrien erabilera egokia eta arrazoizkoa.

Oro har, lehenetsuna emango zaie ikasleengan honako arlo hauek sustatzen dituzten baliabide pedagogikoei: autoezagutza, autoestimua, emozioen erabilera eta oldarkortasunaren kontrola, norberaren autonomia eta erabakiak hartzeko gaitasuna, eta nork bere burua onartzea.

3. Gurasoei, irakasleei eta irakasle ez diren langileei zuzendutako prestakuntza-programak garatzea. Horien helburua izango da ikasleentzako artean aurreko paragrafoan jasotako alderdiak sustatzea.

Irakasleen trebakuntza digitala helburu duten prestakuntza-programetan prebentzioa eta komunikazio-teknologia berrien erabilera egokia sustatuko da, eta ikasleek horien arrazoizko erabilera egitea indartuko da.

4. Ikastetxeetako hezkuntza-proiektuetan, antolakuntza eta funtzionamendu eta barne-araubideko erregelamenduetan, eta elkarbitzitzako proiektuetan, neurriak gartzatzea ikasleentzako integrazioa ikastetxean sustatzeko eta osasunerako lagungarria izango den ingurune fisiko eta erlazonala indartzeko. Horretarako, eskola-, kultura- eta

1. Información y sensibilización al alumnado de todas las edades sobre los riesgos asociados a los consumos de sustancias y a las conductas excesivas en ámbitos diversos: juegos de azar; utilización de la televisión y de las tecnologías digitales (Internet, redes sociales, videojuegos, telefonía móvil) y sus nuevas aplicaciones; alimentación; compras; sexualidad; trabajo; ejercicio físico y otras conductas relacionadas con la estética corporal.

2. Desarrollo en el currículo de los temas relacionados con las adicciones reforzando especialmente, por su novedad, el uso adecuado y racional de las nuevas tecnologías, con el fin de evitar conductas excesivas que pudieran derivar en adicción comportamental.

Con carácter general se priorizará el uso de recursos que fomenten en el alumnado el autoconocimiento, la autoestima y el manejo de las emociones y el control de la impulsividad, la propia autonomía y la toma de decisiones y los valores prosociales de aceptación.

3. Desarrollo de programas formativos dirigidos a personal docente y no docente y a padres y madres en los que se desarrollen los recursos pedagógicos que fomenten en el alumnado los aspectos recogidos en el párrafo anterior.

En los programas formativos destinados a la formación digital del profesorado se reforzarán los aspectos relacionados con la prevención y el fomento de un uso adecuado de las nuevas tecnologías, así como los aspectos relativos a un uso racional de las mismas por parte del alumnado.

4. Desarrollar en los proyectos educativos de los centros, en los reglamentos de organización y funcionamiento o en los reglamentos de régimen interno, así como en los proyectos de convivencia, medidas para favorecer la integración global de los alumnos en el centro y la promoción de un ambiente físico y relacional favorable



aisia-jardueren artean oreka-irizpideak eta neurrizko irizpideak finkatuko dira. Era berean, tutoretza eta orientabide plangintzetan alderdi hauei arreta berezia eskainiko zaie.

- b) Arrisku egoeran dauden adingabeei zuzendutako neurriak, ikasleak substantzia batekiko adikzioa edo jokabide-adikzio bat izateko zer arrisku dagoen kontzientzia izan dezan eta horiei aurre egiteko ahalmenak indartu ditzen. Horretarako, haien esku jarriko dira autokontrol edo autoebaluaketarako tresnak.

3. Goian aipaturiko neurriak ezartzeko, hezkuntza-komunitateko kideen, osasun arloko langileen eta guraso-elkarteen partaidetza sustatzeaz gain, tokian tokiko adikzioen planetan aurreikusitako jarduerak koordinatuko dira, ikastetxea dagoen komunitateko ezaugarri bereziak kontuan hartuta.

#### **18. artikulua. Prebentzioa arrisku handiko egoeretan dauden adingabekoen eta gazteen eremuan**

1. Adikzio-arazoak izan eta arrisku handiko egoeran dauden adingabekoei eta gazteei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gizarte eta hezkuntzako programak eta aholkularitza eta laguntza emateko programak garatuko ditu, bai eta haien egoerara egokitutako esku-hartzeak ere, zeinetan prebentzioan espezializatutako erakunde edo baliabideek hartuko duten parte.
2. Ahal dela, esku-hartzeak adingabearen familiekin egingo dira, eta gizarte eta osasun zerbitzuekin koordinatuko dira, Gizarte Zerbitzuei buruzko 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 27. artikuluaekin bat.

#### **19. artikulua. Prebentzioa lan-esparruan**

1. Eusko Jaurlaritzan lan-arloko eskumena duen sailak, laneko segurtasun-, higiene-, ingurumen- eta osasun-politiken ardura duen Eusko Jaurlaritzaren organoaren bitartez, lagunduko du, negoziazio kolektiboaren bidez eta enpresa-erakundeen eta sindikatu erakundeen arteko akordioen bidez, enpresan prebentzio-neurriak

a la salud, promoviendo el progresivo afianzamiento de criterios de equilibrio y de moderación entre actividades escolares, culturales y de ocio como pautas de ocio saludable. Asimismo, dentro de la planificación de tutoría y orientación se prestará especial atención al desarrollo de estos aspectos.

- b) Medidas dirigidas a personas menores de edad que se encuentran en situación de riesgo, orientadas a que el alumno o la alumna tome conciencia del riesgo de desarrollar una adicción a alguna sustancia o adicción comportamental y potencie sus competencias para hacer frente a las mismas, poniendo a su disposición instrumentos de autocontrol o autoevaluación.

3. Para la adopción de las medidas señaladas anteriormente, además de fomentar la participación de todas y todos los integrantes de la comunidad educativa, de las y los profesionales del ámbito de la salud y de las asociaciones de padres y madres, se coordinarán las actuaciones previstas fundamentalmente en el marco de los correspondientes planes sobre adicciones, teniendo en cuenta las condiciones particulares de la comunidad donde el centro educativo esté localizado.

#### **Artículo 18. Prevención en el ámbito de personas menores de edad y jóvenes en situación de alto riesgo**

1. Respecto de aquellas personas menores y jóvenes con problemas de adicciones que se encuentren en situación de alto riesgo, la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi desarrollará programas preventivos socio-educativos, de asesoramiento y apoyo, e intervenciones adaptadas a su situación en las que podrán participar entidades o recursos especializados en la prevención.
2. Las intervenciones se realizarán en la medida de lo posible con la familia de la persona menor, y se coordinarán con los servicios sanitarios y sociales de conformidad con el artículo 27 de la Ley 12/2008, de 5 de diciembre, de Servicios Sociales.

#### **Artículo 19. Prevención en el medio laboral**

1. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de trabajo, por medio del órgano del Gobierno Vasco encargado de gestionar las políticas en materia de seguridad, higiene, medio ambiente y salud laborales potenciará acuerdos entre organizaciones empresariales y sindicales, la incorporación de medidas de



har daitezen eta enpresaburua horretan inplika dadin eta adikzio-arazoak dituzten langileak tratamendu-prozesuan daudenean zehatzeko ahalak modula daitezen, haien enplegua mantendadin eta lanpostuak gorde daitezen.

2. Lan-esparruan enpresa-erakundeek eta sindikatuek adikzioei aurre hartzeko adostutako ekin-tzek xede hauek izango dituzte:

- a) Lan-ingurune osasungarriak, substantziazirik edo adikzioak sor ditzaketen ingurua-barrik gabekoak, bultzatzea.
- b) Lan-esparruan droga-kontsumoak, portaera arriskugarriak edo neurrigabeak garaiz antzematea eta horietan esku hartzea.
- c) Lan-ingurunea erabiltzea substantzia-kontsumoen eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen portaeren mendekotasunak gainditzeko mekanismo gisa.
- d) Adikzioak, haien aurrekari diren arrisku-faktoreak, substantzien kontsumo problematikoak eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen portaera neurrigabeak lan-eremuan diskriminazio-tresna bihur ez daitezen eta behar besteko konfidentialtasunez trata daitezen zaintzea eta horretan ahalegintzea.

## 20. artikulua. Prebentziozko neurriak lan-esparruan

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak honako prebentziozko neurri hauek sustatuko ditu, laneko segurtasun-, higiene-, ingurumen-eta osasun-politikak kudeatzen dituen Eusko Jaurlaritzako organoaren bitartez eta administrazio publikoen kudeatzaile, enpresaburu, enpresa-erakunde, sindikatu eta arlo honetan zerikusirik duten beste eragile batzuekin lankidetzan, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legean aurreikusitako zerbitzu, jarduera eta parte-hartzeen esparruan:

- a) Neurri orokorrak:
  - a.1 Enpresei eta langileei adikzioen gaineko informazioa ematea eta gai horretan sentsibilizatzea.

Jokabide adikzio-eragileen kasuan edo jokabide-adikzioak sor ditzaketen neurrigabeko portaeren kasuan, haien eta haien ondorio kaltegarriak hobeto eza-

prevención en la empresa y la implicación del empresario o empresaria en ellas, la modulación de potestades disciplinarias, la conservación del empleo y la reserva de los puestos de trabajo de los trabajadores y trabajadoras con problemas de adicciones durante su proceso de tratamiento.

2. Las acciones preventivas de las adicciones que, fruto del acuerdo entre organizaciones empresariales y sindicales se decida promover en el ámbito laboral, se orientarán a:

- a) Favorecer entornos laborales saludables y libres de sustancias o de las circunstancias que pueden generar adicciones.
- b) Detectar e intervenir precozmente los consumos de drogas o conductas de riesgo o excesivas en el ámbito laboral.
- c) Utilizar el medio laboral como mecanismo útil de deshabitación del consumo de sustancias o conductas con riesgo de generar adicciones comportamentales en el medio laboral.
- d) Vigilar y promover que las adicciones y los factores de riesgo precursores de las anteriores, los consumos problemáticos de sustancias y las conductas excesivas susceptibles de generar adicciones comportamentales, no se conviertan en un instrumento de discriminación en el medio laboral y sean tratadas con la debida confidencialidad.

## Artículo 20. Medidas de prevención en el ámbito laboral

La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a través del órgano del Gobierno Vasco encargado de gestionar las políticas en materia de seguridad, higiene, medio ambiente y salud laborales, en colaboración con las y los gestores de las distintas administraciones públicas, los empresarios y las empresarias, las asociaciones empresariales y sindicales y otras y otros agentes concernidos, promoverá en el marco de los servicios, actividades y participación previstos en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales la puesta en marcha de:

- a) Medidas de carácter general:
  - a.1 Información y sensibilización acerca de las adicciones a las empresas y a las y los trabajadores.

En el caso de las conductas adictivas o excesivas susceptibles de generar adicciones comportamentales, las medidas estarán orientadas a mejorar el conoci-

- gutzerazuzenduko dira neurriak, eta garrantzi berezia emango zaie lanerako adikzioa sor dezaketen eta lan-jarduera-ekin lotuta dauden neurrigabeko portae-rei.
- a.2 Osasun-protokoloak eta -gidak egitea; adikzioak behatzeko, garaiz antzemateko eta prebenitzeko programak abian jartztea, eta inguruabar horrek eragiten dien langileei laguntzea. Laguntza hori enpresaburuak emango dio langileari, negoziatio kolektiboan eta enpresa-erakundeen eta sindikatuen arteko akordioetan jasotzen denaren arabera.
- a.3 Lan-eremuan adikzioa sor dezaketen substantziak eskuratzeko mugak jartztea, substantzien eskaria gutxitzeko neurriak hartzea eta jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaerak mugatzea.
- a.4 Arrisku psikosozialen ebaluaketaren barruan sartzea zer lan-faktorek eta lan-baldintzak errazten duten adikzioak agertztea.
- a.5 Enpresaburuak, langileen ordezkariak eta langileak prestatzea.
- b) Arrisku egoeran dauden pertsonen edo taldeen zuzendutako neurriak:
- b.1 Edari alkoholodunen eta tabakoaren kontsumoa prebenitzeko ekintzak; arreta berezia jarriko da substantzien kontsumoak langilearentzat edo beste pertsona batzuentzat arrisku handiagoa dakarten lan-sektore, -jarduera edo -egoeretan, lehenatasunezkoak izango baitira.
- b.2 Jarduera-protokolo bat garatzea, langilearentzat edo beste pertsona batzuentzat arrisku larria edo berehalakoa badago.
- b.3 Jokabide-adikzioak sortzeko arriskua duten portaera neurrigabeak agertzen baldin badira –bereziki, joko problematiko edo patologikoa, edo teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien neurrigabeko erabilera– eraginpeko pertsonari zer laguntza- eta egitura-programa dauden jakiteko informazioa emango zaio.
- miento sobre éstas últimas y sus consecuencias perjudiciales, otorgando una especial consideración a las conductas excesivas relacionadas con la actividad laboral, susceptibles de generar una adicción al trabajo.
- a.2 Elaboración de protocolos y guías de salud, y puesta en marcha de programas de vigilancia, detección precoz y prevención de las adicciones; así como asistencia a las personas trabajadoras que resulten afectadas por esas circunstancias, que será facilitada por la persona empresaria, según los términos de la negociación colectiva y de los acuerdos entre organizaciones empresariales y sindicales.
- a.3 Limitación del acceso a sustancias con capacidad adictiva en el ámbito laboral, medidas orientadas a la reducción de la demanda de sustancias y a limitar el recurso a las conductas con riesgo de generar adicciones comportamentales en el ámbito laboral.
- a.4 Integración en la evaluación de riesgos psicosociales de los factores y condiciones de trabajo que favorecen la aparición de las adicciones.
- a.5 Formación de las personas empresarias, de los y las representantes de las personas trabajadoras y de éstas últimas.
- b) Medidas dirigidas a grupos o a personas en situación de riesgo:
- b.1 Acciones de prevención sobre consumo de bebidas alcohólicas y tabaco, y las referidas a aquellos sectores, actividades o condiciones laborales en los que el consumo de sustancias tenga mayor riesgo sobre la persona trabajadora u otras personas, que tendrán además carácter prioritario.
- b.2 Desarrollo de un protocolo de actuación en caso de riesgo grave o inminente para el trabajador o trabajadora o para terceras personas.
- b.3 En el supuesto de conductas excesivas con riesgo de generar adicciones comportamentales –en particular, juego problemático o patológico, o uso excesivo de las tecnologías digitales y sus nuevas aplicaciones–, informar a la persona afectada de los programas y estructuras de apoyo existentes.



- b.4 Enpresaren prebentzio-zerbitzuetako osasun-langileek eta osasun-sistemakoek elkarrekin jarduerak eta ekintza egitea, arrisku egoerak detektatzeko.
- b.5 Giroan dagoen tabako-kea arrisku-faktore gisa sartzeari tabako-kea arnasten den tokietako lanpostuen arrisku-ebaluaketan.

## 21. artikulua. Prebentzioa gizarte-komunikabideen esparruan

1. Eskumena duten euskal administrazio publikoek komunikabide eta hedabideekiko lankidetzan, bereziki titulartasun publikoa dutenekin batera, esparru honetan adikzioei aurrea hartzeko neurriak hartuko dituzte, helburu hauekin:
  - a) Adikzioei, adikzioek herritarrengan duten prebalentziari eta ondorioei buruzko informazio egokia ematea, arrazoirik gabeko alarmak piztu ez daitezen, zenbait kontsumo edo portaera banalizatu ez daitezen eta herritarrek iritzi eta jarrera kritikoak izan ditzaten.
  - b) Prebentziozko kanpainak eta mezuzak zabaltzea.
  - c) Komunikabide eta hedabideetan gai hau nola tratatu adostea.
  - d) Adikzio-eredu bihur daitezkeen kontsumo edo portaera neurrigabeen gaineko irudi positibo edo erakargarriak eratu ez daitezen ahalegintzea, bereziki ausazko jokoen eta teknologia digitalen kasuan.
2. Titulartasun publikoko komunikabideek prebentziozko mezuzak hedatzeko edukiak sartuko dituzte ohiko programazioan.
3. Substantziekiko adikzioen eta jokabide-adikzioen prebentzioari begira erakundeek bultzatutako kanpainak hedatzeko, lege honetan arautzen den laguntza eta asistentziarako organoak doako tarteak izango ditu publizitatea egiteko, Autonomia Erkidegoan titulartasun publikokoak diren hedabideetan. Publizitaterako denbora, gehienez ere, organoak aukeratutako ordu-tarte bakoitzean publizitaterako izaten den denboraren % 5 izango da, eta kanpainak irauten duen bitartean egingo da.

Euskal administrazio publikoek, horien mende dauden erakunde autonomiadunek, zuzenbide

- b.4 Acciones conjuntas y coordinadas entre el personal de la sanidad de los servicios de prevención de la empresa y del sistema sanitario para la detección de situaciones de riesgo.
- b.5 Inclusión de la exposición al humo ambiental del tabaco como factor de riesgo, en la evaluación de riesgos de los puestos de trabajo de lugares en los que se respire humo de tabaco.

## Artículo 21. Prevención en el ámbito de los medios de comunicación social

1. Las administraciones públicas vascas competentes, en colaboración con los medios de información y comunicación, especialmente con los de titularidad pública, adoptarán en este ámbito medidas preventivas de las adicciones, con el objeto de:
  - a) Difundir una información adecuada sobre las adicciones, sobre su prevalencia en la población y sobre sus consecuencias, con el fin de evitar tanto alarmas injustificadas como la banalización de determinados consumos o conductas, así como para generar en la ciudadanía estados de opinión y actitudes críticas.
  - b) Difundir campañas y mensajes de carácter preventivo.
  - c) Consensuar el tratamiento de la cuestión en los medios de información y comunicación.
  - d) Luchar contra la formación de imágenes positivas o atractivas en relación con determinados consumos o conductas excesivas susceptibles de adoptar un patrón adictivo, especialmente los juegos de azar y las tecnologías digitales y sus nuevas aplicaciones.
2. Los medios de comunicación de titularidad pública incorporarán en su programación habitual contenidos dirigidos a difundir mensajes preventivos.
3. Para la difusión de sus campañas institucionales sobre prevención de las adicciones a sustancias y de las adicciones comportamentales, el órgano de apoyo y asistencia, regulado en la presente ley, dispondrá de espacios gratuitos de publicidad en los medios de comunicación de titularidad pública de la Comunidad Autónoma, hasta al menos el 5 % del tiempo dedicado a la publicidad en cada una de las franjas horarias elegidas por el propio órgano y durante todo el tiempo que duren las campañas.

Las administraciones públicas vascas, los organismos autónomos, entes públicos de derecho



privatuko erakunde publikoek zein enpresa publikoek, dagozkien eskumenen barruan, erakundeek bultzaturiko kanpaina horiek zabaltzen lagunduko dute, haien titulartasunekoak diren publizitaterako barneko zein kanpoko lekuak utziz.

Gizarte-sareak garrantzizkoak direnez pertsonen arteko harremanetarako, eta elkarri eragiteko eta komunikaziorako gizarte-egiturak diren aldetik, eta, bestalde, informazioa eta ezagutza antolatu, sortu, aldatu, hedatu eta partekatzeko tresnak direnez, euskal administrazio publikoek gizarte-sareen erabilera arduratsua sustatuko dute, sensibiltzazio eta prebentziozko kanpainak egingo dituzte eta, bereziki, ingurune horretara zuzendutako adikzioak prebenitzeko ekintzak garatuko dituzte, komunikazio-sare publikoak hornitzen dituzten enpresekin, komunikazio-zerbitzuak ematen dituztenekin, eta erabil-tzaileen elkarrekin batera.

## 22. artikulua. Prebentzioa kirol, aisia eta denbora librearen esparruan

1. Osasun, gazteria, kirol, kultura eta hezkuntza arloetako eskumenak dituzten euskal administrazio publikoek denbora libre erabiltzeko eredu inguruko politika integrala sustatuko dute, substantzien kontsumoaren, jokabide adikzio-eragileen eta jokabide-adikzioak sor ditzaketen beste arrisku edo portaera neurrigabeen ordeko aukerak eskaintzeko, bereziki gazte eta nerabeen artean.
2. Horretarako, ekintza hauek garatuko dituzte, sektore horretako enpresa-erakundeekin batera:
  - a) Dibertsioa, aisia eta denbora libre erabiltzeko modu osasungarri eta askotarikoak aukeratzeko neurriak.
  - b) Teknologia digitalen eta horien aplikazio berrien erabilera arduratsua sustatzea, dibertsio, aisia eta denbora liberako erabiltzen direla kontuan hartuz.
  - c) Edariak saltzen dituzten lokaletan, edari alkoholgabeak sustatzeko jarduerak egitea, eta, oro har, alkoholari loturik ez dauden dibertsio-moduak sustatzea; prebentziozko neurri hau bereziki gazteei zuzenduko zaie.
  - d) Gazteen asoziazionismoa sustatzea eta elkarrekin okupazio-, aisia-, kirol- edo kultura-programetan parte har dezaten bultzatzea, bereziki arriskua duten gizarte-kolektiboen kasuan.

privado y empresas públicas dependientes de las mismas contribuirán a la difusión de las referidas campañas institucionales, en el ámbito de sus competencias, mediante la cesión de los espacios o lugares tanto interiores como exteriores destinados a publicidad de los que sean titulares.

Teniendo en cuenta la importancia de las redes sociales como estructuras sociales que permiten la relación, interacción y comunicación entre personas, así como la organización, producción, transformación, difusión e intercambio de información y conocimiento, las administraciones públicas vascas promoverán un uso responsable de las redes sociales, realizarán campañas de sensibilización y prevención, y llevarán a cabo acciones preventivas de las específicamente dirigidas a ese entorno, en colaboración con las empresas proveedoras de redes públicas de comunicación o prestadoras de servicios de comunicaciones, así como con las organizaciones de personas usuarias.

## Artículo 22. Prevención en el ámbito del deporte, del ocio y del tiempo libre

1. Las administraciones públicas vascas competentes en materia de salud, juventud, deportes, cultura y educación, fomentarán una política integral de modelos del uso del tiempo libre alternativos al consumo de sustancias, comportamientos adictivos y otras conductas de riesgo y excesivas susceptibles de generar adicciones comportamentales, fundamentalmente entre jóvenes y adolescentes.
2. Para ello, realizarán las siguientes actuaciones de forma coordinada con las organizaciones empresariales de los sectores afectados:
  - a) Adopción de formas saludables y diversificadas de utilización de la diversión, del ocio y el tiempo libre.
  - b) Promoción del uso responsable de las tecnologías digitales y sus nuevas aplicaciones en su consideración de diversión, ocio y tiempo libre.
  - c) Articulación de mecanismos para que los locales de venta de bebidas realicen actividades promocionales de bebidas no alcohólicas y, en general, actividades promotoras de formas de diversión no ligadas al consumo de alcohol como medida preventiva ligada a las personas jóvenes especialmente.
  - d) Impulso del asociacionismo juvenil y la participación de las asociaciones en programas de ocupación, de ocio, deportivos o culturales, especialmente en el caso de los colectivos sociales de riesgo.





- e) Prebentziozko ekintzak, kirol-errendimendua hobetzeko substantzien erabileran.

- e) Actuaciones preventivas en el uso de sustancias destinadas a mejorar el rendimiento deportivo.

### 23. artikulua. Prebentzioa ingurumen eta hirigintzaren esparruan

Euskal administrazio publikoak arduratuko dira ingurumen osasungarria, hiri-garapen orekatua eta lurraldearen plangintza elkartasun-, berdintasun- eta arrazionaltasun-irizpideetan oinarritu daitezen, horietan lagungarri baitira adikzioak agertzeko faktoreak gainditzeko –substantziekiko adikzioak, jokatibeadikzioak zein horien aurrekari diren portaera arriskuak–. Horrez gain, marjinalitate-fokoak desagerrarazten eta hiri- eta gizarte-ehuna leheneratzen laguntzen dute. Euskal administrazio publikoek neurri hauek Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan sartzea sustatuko dute.

### Artículo 23. Prevención en el ámbito del medio ambiente y urbanístico

Las administraciones públicas vascas velarán por la consecución de un medio ambiente saludable, por un desarrollo urbano equilibrado y una planificación del territorio basados en criterios de solidaridad, igualdad y racionalidad, como factor de superación de las causas que inciden en la aparición de las adicciones a sustancias, de las comportamentales, y de las conductas de riesgo precursoras de las dos anteriores, contribuyendo a la eliminación de los focos de marginalidad y a la regeneración del tejido urbano y social, por su posible incidencia en el fenómeno de las adicciones. Las administraciones públicas vascas promoverán la inclusión de estas medidas en las distintas directrices de ordenación del territorio.

### 24. artikulua. Prebentzioa justizia, espetxe eta segurtasun esparruetan

1. Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrak aholkularitza eta lankidetzarako programak garatuko ditu, adikzioen arloan, epaitegi eta auzitegiekin, Ministerio Fiskalarekin eta polizia judizialarekin batera.
2. Halaber, osasunerako hezkuntza-programak bultzatuko ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko espetxeetan preso izanda edo zigor-neurri alternatiboak betetzen egonda adikzioak edo haiek izateko arriskua dituzten pertsonentzat.
3. Eusko Jaurlaritzan segurtasun-arloan eskumena duen sailak adikzioen prebentzioaren arloan ekintzak garatuko ditu Eusko Jaurlaritzako beste sailekin edo Euskadiko beste administrazio publikoekin lankidetzan.

### Artículo 24. Prevención en los ámbitos judicial, penitenciario y de seguridad

1. La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi desarrollará programas de asesoramiento, apoyo y colaboración con juzgados y tribunales, Ministerio Fiscal y policía judicial en materia de las adicciones.
2. Asimismo, impulsará programas de educación para la salud destinados a las personas con adicciones o en riesgo de padecerlas, internadas en las instituciones penitenciarias existentes en la Comunidad Autónoma de Euskadi o en situación de cumplimiento alternativo de penas.
3. El departamento del Gobierno Vasco competente en materia de seguridad desarrollará, en colaboración con otros departamentos del Gobierno Vasco y otras administraciones públicas de Euskadi, actuaciones para la prevención de las adicciones.

## BIGARREN TITULUA ESKAINTZAREN MURRIZKETA

### 25. artikulua. Polizia-jardueraren irizpideak

1. Euskadiko Poliziaren kidegoek, ordenamendu juridikoak esleitzen dizkien eginkizunak betetzean, legez kanpoko droga, estupefaziante eta psicotropiko trafikoaren inguruko ikerketak egingo dituzte eta beste erakundeekin elkarlanean jardungo dute droga-eskariaren eta -kontsumoaren aurrezaintzaren arloan.
2. Legez kanpoko droga, estupefaziante eta psicotropiko trafikoaren inguruko ikerketak egitean, Euskadiko poliziak, ondorengo irizpideak izango ditu kontuan:

## TÍTULO SEGUNDO REDUCCIÓN DE LA OFERTA

### Artículo 25. Criterios de actuación policial

1. Los cuerpos de la Policía del País Vasco, en el ejercicio de las funciones que otorga el ordenamiento jurídico a cada uno de ellos, perseguirán el tráfico ilícito de drogas, sustancias estupeficientes y psicotrópicas, y colaborarán con otras instituciones en acciones dirigidas a la prevención y control de la oferta, la demanda y los consumos de drogas.
2. La actuación policial dirigida a la persecución del tráfico ilícito de drogas, sustancias estupeficientes y psicotrópicas tendrá en consideración los siguientes criterios:

- |  |   |
|--|---|
| <p>a) Elkarte kriminalen aurka eta drogak eta adikzioa eragin dezaketen bestelako substantziak legez kanpo banatzen dituzten sareen aurka jardungo du.</p> <p>b) Legez kanpoko droga-trafikoarekin loturaren bat duten jarduerak ikertuko ditu, gertakari horiekin zerikusia duten jarduera ekonomikoak aintzat hartuta.</p> <p>c) Substantzia bakoitzaren legez kanpoko trafikoaren kontra egitea bultzatuko du. Horretarako, Eusko Jaurlaritzan osasun-arloan eskumena duen sailak substantzia bakoitzaren inguruan egiten duen alerta goiztiarreko txostena hartuko da aintzat.</p> | <p>a) Operar sobre las organizaciones delictivas y las redes de distribución ilícita de drogas y de sustancias con capacidad adictiva.</p> <p>b) Investigar las actividades conexas al tráfico ilícito de drogas, incluidas las relacionadas con las actividades económicas de toda índole vinculadas al fenómeno.</p> <p>c) Potenciar la persecución del tráfico ilícito de cada sustancia, atendiendo a los informes de alerta temprana que el departamento del Gobierno Vasco competente en materia de salud realice sobre la misma.</p> |
|--|---|
3. Euskadiko Poliziak zaintza eta ikuskaritza jarduerak egingo ditu, adingabeek legez debekatura dituzten jokoetan parte hartu ez dezaten.
4. Era berean, Euskadiko Poliziak zaintza eta ikuskaritza jarduerak egingo ditu legen honetan xedatutako substantzien eskaintza murrizteko, batez ere, adingabeak babesteko.

#### LEHENENGO KAPITULUA

#### EDARI ALKOHOLDUNEN PUBLIZITATEA, SUSTAPENA, BANATZEA, SALMENTA ETA KONTSUMOA MUGATZEKO NEURRIAK

##### 1. atala

#### Edari alkoholdunen publizitatea eta sustapena mugatzeko neurriak

#### 26. artikulua. Edari alkoholdunen publizitatea

Edari alkoholdunen publizitateak muga hauek bete beharko ditu:

- Publizitate hori ezingo da berariaz adingabeei eta haurdunei zuzenduta egon, eta bertan ezin izango dira adingabeak edari alkoholdunak kontsumitzen agertu.
- Debekatuta egongo da edari alkoholdunen publizitatean adingabeen irudia eta ahotsa erabiltzea; gainera, adingabeak ezingo dira horrelako publizitatean protagonista izan, ezta agertu ere.
- Ezingo dira elkarrekin erlazionatu edari alkoholdunak kontsumitzea eta errendimendu fisiko hobetzea, ibilgailuak gidatzea edo armak erabiltzea. Era berean, kontsumo horrek gizartearen edo sexuaren arloan arrakasta dakarren itxurarik ere ezingo da eman, edo sendatzeko, bizkor-

- La Policía del País Vasco realizará actuaciones de vigilancia y control para evitar la participación de personas menores de edad en juegos cuyo acceso les está prohibido por la ley.
- Asimismo, la Policía del País Vasco realizará labores de vigilancia y control de las medidas de reducción de la oferta de las distintas sustancias contempladas en la presente ley, con especial énfasis en la protección de las personas menores de edad.

#### CAPÍTULO PRIMERO

#### DE LAS LIMITACIONES A LA PUBLICIDAD, PROMOCIÓN, SUMINISTRO, VENTA Y CONSUMO DE BEBIDAS ALCOHÓLICAS

##### Sección 1.ª

#### Limitaciones a la publicidad y a la promoción del consumo de bebidas alcohólicas

#### Artículo 26. Publicidad en materia de bebidas alcohólicas

La publicidad de bebidas alcohólicas deberá respetar, en todo caso, las siguientes limitaciones:

- No podrá estar dirigida específicamente a personas menores de edad o embarazadas ni en particular presentar a personas menores de edad o a gestantes consumiendo bebidas alcohólicas.
- Queda prohibida la utilización de la imagen y de la voz de personas menores de edad en la publicidad de bebidas alcohólicas, no pudiendo aquéllas protagonizar ni figurar, de ningún modo, en los anuncios e informaciones publicitarios.
- No deberá asociarse el consumo de alcohol a una mejora del rendimiento físico, a la conducción de vehículos o al manejo de armas, ni dar la impresión de que dicho consumo contribuye al éxito social o sexual, ni sugerir que tiene propiedades terapéuticas o un efecto esti-



tzeko edo lasaitzeko gaitasuna duela adierazi; arazoak konpontzeko bide bat denik ere ezingo da adierazi. Kontsumo hori ezingo da lotu hezkuntzako, osasunaren arloko edo kiroleko jarduerekin.

4. Ezingo da edari alkoholodunak neurririk gabe kontsumitzea bultzatu, ezta ere ez edatea edo edanda ez egotea gauza txarra balitz bezala agertu. Bestalde, edari batzuek duten alkohol-kantitate handia ezin izango da nabarmendu ezaugarri positibo baiditzen.
5. Marka edo merkataritzako izenen erreprodukzio grafikoak egin ahal izateko, behar bezala erregistratuta egon beharko dute marka eta izen horiek, eta kasu guztietan garbi asko erakutsi beharko da zenbat alkohol duen kasuan kasuko edariak.

#### 27. artikulua. Edari alkoholodunak sustatzea

1. Azoketan, erakusketetan edo antzeko jardueretan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholodunak sustatzen badira, gainerako guneetatik bereizitako tokietan egin beharko da eta adingabeak sartzeari debekatuko da. Sarreran, debeku hori jasotzen duen kartela jarriko da.
2. Edari alkoholodunen gehiegizko kontsumoa eragin dezaketen sustapenak debekatuta egongo dira; batez ere, edari alkoholodunak bertan kontsumitzeko saltzen diren establezimenduen barruan egindako eskaintzak, sariak, zozketak, konkursoak edo prezio murrizketak.
3. Adin txikikoen arteko edari alkoholodunen sustapena debekatuta egongo da, edozein bitarteko erabilita: kartelak, prospektuak, gonbidapenak banatuta, edota edari alkoholodunak, horien markak, enpresa banatzaileak edo horiek kontsumitzen diren establezimenduak aipatzen dituzten objektuak banatuta.

#### 28. artikulua. Edari alkoholodunen publizitatea egitea barruan eta kanpoan

1. Debekatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholodunen kanpoko publizitatea egitea. Kanpoko publizitate hartuko da erabilera orokorrekoak diren guneetatik nahiz leku irekietatik pasatzen diren edo gune horietan dauden pertsonen arreta erakartzeko gai den publizitatea, irudiaren, soinuaren edo beste edozein bitarteko bidez.

Ez dute debeku hori izango lege baimendutako produkzio- edo salmenta-guneetako seinale edo adierazleek; dena den, horiek ere 26. artikuluan aipatzen diren mugak izango dituzte.

mulante o sedante, o que constituye un medio para resolver conflictos. Tampoco podrá asociarse este consumo a prácticas educativas, sanitarias o deportivas.

4. No deberá estimular el consumo inmoderado de bebidas alcohólicas u ofrecer una imagen negativa de la abstinencia o de la sobriedad, ni subrayar como cualidad positiva de las bebidas su alto contenido alcohólico.
5. Sólo se podrán hacer reproducciones gráficas de las marcas o nombres comerciales que estén debidamente registrados, a los cuales en todo caso deberá ir unida la mención, con caracteres bien visibles, de los grados de alcohol de la bebida a que se refieren.

#### Artículo 27. Promoción de bebidas alcohólicas

1. Cuando la actividad de promoción del consumo de bebidas alcohólicas superiores a 20 grados se lleve a cabo con ocasión de ferias, muestras y actividades similares, la promoción se realizará en espacios diferenciados y separados y no se permitirá el acceso a la personas menores de edad. En la entrada se deberá colocar un cartel que advierta de tal prohibición.
2. Queda prohibido cualquier tipo de promoción que pueda inducir al consumo abusivo de bebidas alcohólicas, especialmente las que puedan incitar al mismo por medio de ofertas, premios, sorteos, concursos o rebajas de sus precios en el interior de los establecimientos donde esté autorizada su venta para el consumo en el propio local.
3. Se prohíbe la promoción de bebidas alcohólicas mediante la difusión a menores de edad, por cualquier medio, de prospectos, carteles, invitaciones u otra clase de objeto en el que se mencionen bebidas alcohólicas, sus marcas o sus empresas productoras o los establecimientos en los que se realice su consumo.

#### Artículo 28. Publicidad exterior e interior en materia de bebidas alcohólicas

1. Queda prohibida la publicidad exterior de bebidas alcohólicas, de más de 20 grados, entendiéndose por tal aquella publicidad susceptible de atraer, mediante imagen, sonido, o cualquier otro medio, la atención de las personas que permanezcan o discurran por ámbitos de utilización general o en lugares abiertos.

Quedan exceptuadas de esta prohibición las señales indicativas propias de los puntos de producción y venta legalmente autorizados, que estarán sometidas, no obstante, a las limitaciones del artículo 26.

- |  |  |
|--|--|
| <p>2. Debebatuta egongo da edari alkoholduen publizitatea jartzea leku publiko hauetan:</p> <p>a) Batez ere 18 urtez beherako pertsonentzat diren lokaletan.</p> <p>b) Osasun-zentroetan, zentro sozialetan, zentro soziosanitarioetan, ikastetxeetan eta horietarako sarbideetan.</p> <p>c) Zinema-aretoetan eta ikuskizunak ospatzen diren aretoetan.</p> <p>d) Garraio publikoen barruko aldean, geltokietan eta portu zein aireportuetan jendea egoteko egokitutako lekuetan.</p> <p>e) Administrazio publikoetako bulegoetan.</p> <p>3. Debebatuta egongo da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholduen publizitatea jartzea kirol-zentro eta -instalazioetan.</p> <p>4. Debebatuta egongo da edari alkoholduen publizitatea egitea postontzietan orriak sartuta, posta bidez bidalita, telefonoz deituta, modu telematikoan igorrita eta, oro har, bizilekura bidalitako mezuen bidez, salbu eta 18 urte baino gehiagoko pertsonen izenean bidaltzen badira, edo publizitate-euskarrian doan edukia-<br/>ren % 30 baino gutxiago badira.</p> | <p>2. Se prohíbe la publicidad de bebidas alcohólicas en los siguientes locales públicos:</p> <p>a) Aquellos destinados a un público compuesto predominantemente por menores de 18 años.</p> <p>b) Centros sanitarios, sociales, sociosanitarios y docentes, y sus accesos.</p> <p>c) Cines y locales donde se celebren espectáculos.</p> <p>d) Interior de los transportes públicos, estaciones y locales de los puertos y aeropuertos destinados al público.</p> <p>e) Dependencias de las administraciones públicas.</p> <p>3. Se prohíbe la publicidad de bebidas alcohólicas de más de 20 grados en instalaciones y centros deportivos.</p> <p>4. Queda prohibida la publicidad de bebidas alcohólicas mediante su distribución por buzones, por correo, por teléfono, por medios telemáticos y, en general, mediante mensajes que se envíen a un domicilio, salvo que éstos vayan dirigidos nominalmente a mayores de 18 años, o que dicha publicidad no supere el 30% en relación con el conjunto del soporte publicitario.</p> |
|--|--|

#### 29. artikulua. Edari alkoholduen publizitatea hedabideetan

1. Euskal Autonomia Erkidegoan paperean, modu elektronikoa edo digitalean editatzen diren egunkari, aldizkari eta gainerako argitalpenek zein era guztietako komunikabideek –entzutekoak, ikustekoak edo ikus-entzunezkoak– muga hauek izango dituzte:
- a) Debebatuta egongo da horietan edari alkoholduen publizitatea egitea, 18 urtez beherakoei zuzendutakoak baldin badira.
- b) Gainerako kasuetan, debebatuta egongo da edari alkoholduen publizitatea jartzea lehenengo orrialdean, kirolei buruzko orrialdeetan, 18 urtez beherakoei zuzendutako tarteeetan eta denbora pasatzekoak dituzten tarteeetan.
2. Euskadin kokatutako eta bertan egindako telebista-programetan, aurkezleak edo elkarrizketatutak ezingo dira alboan edari alkoholduak dituztela agertu, ez eta produktu horien markak, izen komertzialak, logotipoak zein produktu

#### Artículo 29. Publicidad de bebidas alcohólicas en medios de comunicación

1. Los periódicos, revistas y demás publicaciones, así como cualquier medio de comunicación auditivo, visual o audiovisual, sea impreso, electrónico o digital, editados en Euskadi, estarán sometidos a las siguientes limitaciones:
- a) Se prohíbe la inclusión en ellos de publicidad de bebidas alcohólicas, si van dirigidos a personas menores de 18 años.
- b) En los demás casos, se prohíbe que la publicidad de bebidas alcohólicas aparezca en la primera página, en las páginas de deportes, en las que contengan espacios dirigidos a personas menores de 18 años y en las dedicadas a pasatiempos.
2. Se prohíbe la emisión de programas de televisión desde los centros emisores de televisión ubicados en Euskadi y realizados en la comunidad autónoma en los que las personas que presentan el programa, o quienes sean entrevis-

horiek identifikatzeko edo gogora ekartzeko balio duten bestelako zeinuak, bistan direla ere.

3. Debebatuta egongo da Euskadin kokatutako irratiek edari alkoholodunen publizitatea egitea 08:00etatik 22:00ak bitartean.
4. Debebatuta egongo da Euskadin kokatutako telebistek edari alkoholodunen publizitatea egitea 08:00etatik 22:00ak bitartean, baita produktuaren kokapenaren bidez eginiko publizitatea ere.

Produktuaren kokapenaren bidezko publizitatea da ikus-entzunezko hedabideetan batez ere erabiltzen den teknika bat, produktu, marka edo mezua programa baten barruan txertatzean datzana.

### 30. artikulua. Edari alkoholodunen beste publizitate-mota batzuk

1. Debebatuta egongo da dena delako markak, gauzakiak edo produktuak, duen izenagatik, erabilitako hitzengatik, grafismoagatik, aurkezteko moduagatik edo beste arrazoiren batengatik, zeharka edo erdi ezkutuan edari alkoholodunen publizitatea egitea.
2. Debebatuta egongo da edari alkoholodunen publizitatea egitea hezkuntzako edo gizarteko ekitaldietan edo haiek babestekoetan; debeku bera egongo da lehiaketan, zozketan eta kontsumoa eragiteko antzeko beste jardueren bidez egindako sustapenetan ere.
3. Debebatuta egongo da kirol- edo kulturalekitaldietan eta haiek babestekoetan 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholodunen publizitatea egitea.

#### 2. atala

#### Edari alkoholodunak banatu eta saltzeko mugak

### 31. artikulua. Edari alkoholodunen banaketa eta salmenta

1. Ondorengo pertsonen ezin izango zaie edari alkoholodunik saldu, ez eta banatu ere:
  - a) Adingabeei.
  - b) Lege honen 33.2 artikuluan aipatzen diren profesionalen.
2. Makina automatikoen bidez ezin izango da edari alkoholodunik saldu edo banatu.

tadas, aparezcan junto a bebidas alcohólicas o mencionen sus marcas, nombres comerciales, logotipos y otros signos identificativos o asociados a tales productos.

3. Queda prohibida la emisión de publicidad de bebidas alcohólicas desde los centros emisores de radio ubicados en Euskadi en el horario comprendido entre las 08:00 y las 22:00 horas.
4. Queda prohibida la emisión de publicidad de bebidas alcohólicas, incluidos los denominados de publicidad por emplazamiento, desde los centros de televisión ubicados en Euskadi en el horario comprendido entre las 08:00 y las 22:00 horas.

Se entiende por publicidad por emplazamiento aquella técnica publicitaria utilizada sobre todo en los medios de comunicación audiovisuales, que consiste en la inserción del producto, marca o mensaje dentro del contenido del programa.

### Artículo 30. Otras formas de publicidad en materia de bebidas alcohólicas

1. Se prohíbe la publicidad de marcas, objetos o productos que, por su denominación, vocabulario, grafismo o modo de presentación o cualquier otra causa, puedan derivar de forma indirecta o encubierta en publicidad de bebidas alcohólicas.
2. Se prohíbe la publicidad de bebidas alcohólicas con ocasión o mediante el patrocinio de actividades educativas, o sociales o a través de promociones tales como concursos, rifas y otras formas similares de inducción al consumo.
3. Se prohíbe la publicidad de bebidas alcohólicas de más de 20 grados con ocasión o mediante el patrocinio de actividades deportivas y culturales.

#### Sección 2.ª

#### Limitaciones al suministro y venta de bebidas alcohólicas

### Artículo 31. Suministro y venta de bebidas alcohólicas

1. No se permitirá la venta ni el suministro de bebidas alcohólicas a las siguiente personas:
  - a) A personas menores de edad.
  - b) A las y los profesionales a que se alude en el artículo 33.2 de la presente ley.
2. Queda prohibida la venta o suministro de bebidas alcohólicas a través de máquinas expendedoras.



- |   |  |
|---|--|
| <p>3. Leku hauetan ezin izango da edari alkoholdunik saldu, ez eta banatu ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Egiten dituzten jarduerengatik eta eskaintzen dituzten zerbitzuengatik batez ere 18 urtez beherakoentzat diren lokal eta zentroetan.</li> <li>b) 18 urtera arteko ikasleentzako ikastetxeetan.</li> <li>c) Kirol lehiaketak egiten diren instalazioetan eta zentro sanitario, soziosanitario eta zerbitzu sozialetakoetan.</li> <li>d) Kanean, salbu eta terrazetan, mahai hankabakarretan edota udalek baimendutako ekintza eta jardueretan.</li> </ul> | <p>3. No se permitirá la venta o el suministro de bebidas alcohólicas en:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Los locales y centros, que por las actividades y servicios que ofrecen, estén preferentemente destinados a un público compuesto por personas menores de edad.</li> <li>b) Los centros que impartan enseñanza a alumnado de hasta 18 años.</li> <li>c) En las instalaciones en que se celebren competiciones deportivas, así como en los centros sanitarios, sociosanitarios y de servicios sociales.</li> <li>d) La vía pública, salvo en terrazas, veladores o actividades y eventos que cuenten con autorización expresa municipal.</li> </ul> |
| <p>4. Ondorengo lekuetan ezin izango da 20 gradu baino gehiagoko edari alkoholdunik saldu, ez eta banatu ere:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) 18 urte baino gehiagoko ikasleentzako irakaskuntza-zentroetan.</li> <li>b) Administrazio publikoen egoitzetan.</li> <li>c) Geltokietan eta autobide eta autopistetakozko zerbitzugune eta ostalaritzako guneetan.</li> <li>d) Jolasguneetan (parke tematikoetan, esaterako) edota aisialdirako edo dibulgaziorako guneetan.</li> </ul>  | <p>4. No se permitirá la venta o el suministro de bebidas alcohólicas de más de 20 grados en:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Los centros que impartan enseñanza a alumnos y alumnas mayores de 18 años.</li> <li>b) Las dependencias de las administraciones públicas.</li> <li>c) Las estaciones, áreas de servicio y establecimientos hosteleros de autovías y autopistas.</li> <li>d) Espacios recreativos, como parques temáticos y otros de entretenimiento y de divulgación del conocimiento.</li> </ul>  |
| <p>5. Edari alkoholdunak bertan kontsumitzera zuzenduta ez dauden establezimendu komertzialetan ezingo da edari alkoholdunik saldu edo banatu 22:00etatik 07:00ak bitartean, haien ordutegia edozein izanda ere.</p> <p>Establezimendu horiek neurri bereziak hartu beharko dituzte adingabeei alkohola ez saltzeko. Autozerbitzu establezimenduetan edari alkoholdunak toki jakin batean jarriko dira.</p>   | <p>5. No se permitirá la venta o el suministro de bebidas alcohólicas en establecimientos comerciales no destinados al consumo inmediato de bebidas alcohólicas, con independencia de su régimen horario, desde las 22 horas hasta las 7 horas del día siguiente.</p> <p>Estos establecimientos deberán adoptar medidas especiales de control para evitar la venta de bebidas alcohólicas a las personas menores de 18 años. En los establecimientos de autoservicio, la exposición de bebidas alcohólicas se realizará en una sección concreta.</p>   |
| <p>6. Aurreko lerroaldeetan aipatu diren leku guztietan, kartel baten bidez aditzera emango da debekuaren berri.</p> <p>Era berean, edari alkoholdunak saltzen diren establezimendu edo jarduera orotan, kartelak jarri beharko dira toki agerian, adingabeei alkohola saltzea debekatuta dagoela adierazteko.</p>  | <p>6. Todos los lugares aludidos en los párrafos precedentes, recogerán la prohibición mediante el correspondiente cartel.</p> <p>Asimismo en todas las actividades y establecimientos en los que se vendan bebidas alcohólicas, deberán colocarse de forma visible carteles que adviertan de la prohibición de venta a personas menores de edad.</p>  |



Erregelamendu bidez zehaztuko dira aurreko bi paragrafoetan aipatutako seinaleen ezaugarriak.

7. Debehatuta egongo da adingabeei edari alkoholodunen ontzien antzeko produktuak saltzea edo banatzea.

### 32. artikulua. Edari alkoholodunak zerbitzatzen diren establezimenduetan sartzea eta egotea

1. Debehatuta egongo da 16 urte baino gutxiagoak edari alkoholodunak zerbitzatzen dituzten establezimendu publiko itxietan sartzea eta egotea, hala nola tabernetan, dantzalekuetan, diskoteketan, ikuskizunetan, jolas-areto publikoetan eta, oro har, edari alkoholodunak saldu edo kontsumitzen diren leku edo establezimendu guztietan, baldin eta guraso edo arduradunekin ez badaude.
2. Aurreko paragrafoan aipatutako lekuetan, toki agerian, seinalea jarri beharko da debeku horren berri emateko.

### 3. atala

#### Edari alkoholodunak kontsumitzeko mugak

### 33. artikulua. Edari alkoholodunen kontsumoa

1. Debehatuta egongo da 18 urtez azpiko pertsonen edari alkoholodunak kontsumitzea.
2. Pertsona hauek ezingo dute edari alkoholodunik kontsumitu, zerbitzua eskaintzen ari direla edo zerbitzua eskaintzeko prest badaude:
  - a) Zerbitzu publikoko ibilgailuen gidariek.
  - b) Osasun arloko langileek.
  - c) 18 urtetik beherako ikasleak dituzten irakasleek.
  - d) Kidego armatuetako kideek eta beren eginkizunetan armak eraman behar dituzten profesionalak.
  - e) Adingabeekin lan egiten duten pertsonen.
  - f) Beren jarduera edari alkoholodunen eraginpean aurrera eramanez gero, norberaren edo beste pertsona batzuen bizitza nahiz osotasun fisikoa arriskuan jar lezaketzen guztiek, orokorrean.
3. Debehatuta egongo da edari alkoholodunak kontsumitzea 31.3 artikulua debekatzen dituen lekuetan.

Reglamentariamente se determinarán las características de los carteles a los que se refieren los dos apartados anteriores.

7. Se prohíbe la venta y el suministro a personas menores de edad de cualquier producto que imite los envases de bebidas alcohólicas.

### Artículo 32. Limitaciones a la entrada y permanencia en establecimientos donde se sirvan bebidas alcohólicas

1. Se prohíbe la entrada y permanencia de personas menores de 16 años en establecimientos públicos cerrados que sirvan bebidas alcohólicas tales como bares, salas de fiesta, discotecas, espectáculos o salas de recreo público y, en general, en cualesquiera lugares o establecimientos públicos en los que se venda o consuma alcohol, salvo que vayan acompañados de sus madres, padres o personas responsables.
2. En los lugares aludidos en el párrafo anterior deberán colocarse de forma visible carteles que adviertan de dicha prohibición.

### Sección 3.ª

#### Limitaciones al consumo de bebidas alcohólicas

### Artículo 33. Consumo de bebidas alcohólicas

1. Se prohíbe el consumo de bebidas alcohólicas por personas menores de 18 años.
2. Se prohíbe el consumo de bebidas alcohólicas por parte de las personas que se encuentran prestando servicios o en disposición de prestarlo, como:
  - a) Conductoras o conductores de vehículos de servicio público.
  - b) Personal de la sanidad.
  - c) Personal docente con alumnado menor de 18 años.
  - d) Miembros de cuerpos armados y demás profesionales que, por el desempeño de sus funciones, porten armas de fuego.
  - e) Personal que trabaje con personas menores de edad.
  - f) En general, todas aquellas cuya actividad, de realizarse bajo influencia de bebidas alcohólicas, pudiera poner en riesgo o causar un daño contra su vida o integridad física o las de terceras personas.
3. Queda prohibido el consumo de bebidas alcohólicas en los lugares en los que está prohibida su venta o suministro, de conformidad con el artículo 31.3.



**BIGARREN KAPITULUA**  
**TABAKOAREN KONTSUMOAREN SUSTAPENA,**  
**PUBLIZITATEA, BANAKETA, SALMENTA ETA**  
**KONTSUMOA MUGATZEKO NEURRIAK**

**1. atala**

**Tabakoaren kontsumoaren publizitatea egiteko eta sustatzeko mugak**

**34. artikulua. Tabakoaren publizitatea**

Debekatuta dago tabako-produktuen publizitate guztia, kasu hauetan izan ezik:

1. Tabako-merkataritzan parte hartzen duten profesionalentzat bakarrik diren argitalpenetan.
2. Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetatik kanpo argitaratu edo inprimatu diren eta tabako-produktuen publizitatea daukaten argitalpenetan, baldin eta argitalpen horiek ez badira nagusiki Europar Batasuneko merkaturako eginak. Edonola ere, halako publizitatea debekatuta egongo da argitalpenak batez ere adingabeentzat baldin badira.

**35. artikulua. Tabakoa sustatzea**

1. Debekatuta egongo da tabako-produktuak babestea eta haien beste edozein motatako sustapena egitea bitarteko eta euskarri guztietan, baita tabako-makinetan eta informazioaren gizartearen zerbitzuetan ere. Hori horrela, ondoko hauek salbuespentzat joko dira: tabako-produktuak sektoreko profesionali aurkeztea, Tabako Merkatuaren Antolamenduari eta Zerga Arauei buruzko maiatzaren 4ko 13/1998 Legearen esparruan, eta produktu horiek Estatuko tabako- eta tinbre-saltokien sarean sustatzea; nolana ere, debekatuta egongo da, sustapen horren hartzailak adingabeak direnean, tabakoa edo tabako-produktuei edo erretzeko ohiturari soilik loturiko ondasun edo zerbitzuak doan banatzen direnean edo doan banaturikoek tabako-produktuetarako erabiltzen diren izenak, markak, ikurrak edo bestelako bereizgarriak inprimatuta dauzkatenengan. Dena den, aipaturiko ondasun edo zerbitzuen balioa edo salneurria ezin daiteke izan sustatu nahi diren tabako-produktuen salneurriaren ehuneko bost baino handiagoa.

Jarduera horiek ez dira inoiz erakusleihoetan egingo, ez establezimendu horietatik kanpo hedatuko, ez kanpora zuzenduko.

2. Debekatuta egongo dira zuzenean edo zeharka tabakoa sustatu nahi duten jarduerak eta tabako-produktuen, -ondasunen edo -zerbitzuen doako edo sustapenezko banaketa, tabako- eta tinbre-saltokien sarean izan ezik.

**CAPÍTULO SEGUNDO**  
**DE LAS LIMITACIONES A LA PUBLICIDAD, PRO-**  
**MOCIÓN, SUMINISTRO, VENTA Y CONSUMO DE**  
**TABACO**

**Sección 1.ª**

**Limitaciones a la publicidad y a la promoción del consumo de tabaco**

**Artículo 34. Publicidad en materia de tabaco**

Se prohíbe toda publicidad de productos del tabaco, con las siguientes excepciones:

1. Las publicaciones destinadas exclusivamente a profesionales que intervienen en el comercio del tabaco.
2. Las publicaciones que contengan publicidad de productos del tabaco editadas o impresas en países que no forman parte de la Unión Europea, siempre que dichas publicaciones no estén destinadas principalmente al mercado comunitario, y salvo que estén dirigidas principalmente a las personas menores de edad.

**Artículo 35. Promoción en materia de tabaco**

1. Se prohíbe el patrocinio y cualquier otra forma de promoción de los productos del tabaco en todos los medios y soportes, incluidas las máquinas expendedoras y los servicios de la sociedad de la información, con la excepción de las presentaciones de productos del tabaco a profesionales del sector en el marco de la Ley 13/1998, de 4 de mayo, de Ordenación del Mercado de Tabacos y Normativa Tributaria, así como la promoción de dichos productos en las expendedorías de tabaco y timbre del Estado, siempre que no tengan como destinatarias a las personas menores de edad ni suponga la distribución gratuita de tabaco o de bienes y servicios relacionados exclusivamente con productos del tabaco o con el hábito de fumar o que lleven aparejados nombres, marcas, símbolos o cualesquiera otros signos distintivos que sean utilizados para los productos del tabaco. En todo caso, el valor o precio de los bienes o servicios citados no podrá ser superior al 5 % del precio de los productos del tabaco que se pretenda promocionar.

En ningún caso dichas actividades podrán realizarse en los escaparates ni extenderse fuera de dichos establecimientos, ni dirigirse al exterior.

2. Se prohíbe, fuera de la red de expendedorías de tabaco y timbre, la distribución gratuita o promocional de productos, bienes o servicios, u otras acciones dirigidas de forma directa o indirecta a la promoción del tabaco.





**36. artikulua. Tabakoaren publizitatea hedabi-deetan**

Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako eta bertan egindako telebista-programetan, aurkezleak, elkarrizketatuak, kolaboratzaileak eta gonbidatuak ezingo dira tabakoa erretzen agertu, ez eta tabako-produktuen markak, izen komertzialak, logotipoak zein produktu horiek identifikatzeko edo gogora ekartzeko balio duten bestelako zeinuak bistan direla ere..

**37. artikulua. Tabakoaren publizitaterako beste-lako erak**

Debekatuta egongo da dena delako markak, gauzakiak edo produktuak, duen izenagatik, erabilitako hitzengatik, grafismoagatik, aurkezteko moduagatik edo beste arrazoiren batengatik, zeharka edo erdi ezkutuan tabakoaren publizitatea egitea. Salbuespena izango dira tabako-dendak eta tabakoaren sektoreko jarduera profesionalarekin zuzenean loturiko espazioak.

**2. atala****Tabakoa banatu eta saltzeko mugak****38. artikulua. Tabakoa banatu eta saltzea**

1. Tabako-produktuen txikizkako salmenta eta banaketa tabako- eta tinbre-saltokien sarean edo tabako-makinen bitartez baino ezin izango dira egin. Tabako-produktuak makinen bidez saldu edo banatzeko, dagozkien administrazio-baimenak dituzten establezimenduetan kokatu beharko dira tabako-makinak.
2. Guztiarekin ere, geruza naturala duten zigarroak eta zigarro txikiak eskuz saldu ahal izango dira tabernetan, jatetxeetan eta sukaldaritzako gainerako establezimendu itxietan, Tabako Merkaturako Ordezkaritzak emandako administrazio-baimena baldin badute.
3. Debekatuta egongo da tabakoa eta tabako-produktu eta -gaiak 18 urtetik beherako pertsonen saltzea edo banatzea. Era berean, debekatuta egongo da 18 urtetik beherakoei tabako-imitazioak saltzea edo banatzea, horrek tabakoa edo tabako-produktu eta -gaiak erabiltzera bultzatzen baditzake.
4. Tabako-produktuen salmenta eta banaketa baimenduta dituzten establezimenduetan, baimen hori adierazten duten kartelak jarriko dira, ikusteko moduan. Kartel horiek, gainera, informatu beharko dute debekatuta dagoela 18 urtetik beherakoei tabakoa saltzea, eta tabakoaren erabilerak osasunari eragiten dizkion kalteez ohartarazi beharko dute. Establezimendu horietan erosle guztiei eskatuko zaie adindun

**Artículo 36. Publicidad de tabaco en medios de comunicación**

Se prohíbe en todos los medios de comunicación editados en la Comunidad Autónoma de Euskadi la emisión de programas o imágenes, en los que las personas que presentan el programa, las entrevistadas, las colaboradoras o las invitadas aparezcan fumando o mencionen o muestren, directa o indirectamente, marcas, nombres comerciales, logotipos y otros signos identificativos o asociados a productos del tabaco.

**Artículo 37. Otras formas de publicidad en materia de tabaco**

No se permitirá la publicidad de marcas, objetos o productos que, por su denominación, vocabulario, grafismo, modo de presentación o cualquier otra causa, puedan derivar indirecta o encubiertamente en publicidad de tabaco, salvo en los estancos o aquellos espacios directamente relacionados con el desarrollo de actividades profesionales del sector del tabaco.

**Sección 2.ª****Limitaciones al suministro y venta de tabaco****Artículo 38. Suministro y venta de productos del tabaco**

1. La venta y suministro al por menor de productos del tabaco sólo podrá realizarse en la red de expendedurías de tabaco y timbre o por medio de máquinas expendedoras, ubicadas en establecimientos que cuenten con las oportunas autorizaciones administrativas.
2. Sin perjuicio de lo anterior, a los bares, restaurantes y demás establecimientos de restauración cerrados que cuenten con autorización administrativa otorgada por el Comisionado para el Mercado de Tabacos, se les permitirá la venta manual de cigarrillos y cigarrillos provistos de capa natural.
3. Se prohíbe vender o suministrar tabaco, sus productos y labores a personas menores de 18 años. Igualmente, se prohíbe vender o suministrar a personas menores de 18 años imitaciones de tabaco que puedan suponer una incitación al uso de éste o de sus productos y labores.
4. En los establecimientos en los que está autorizada la venta y suministro de productos de tabaco se instalarán, en lugar visible y con caracteres legibles, carteles indicativos al respecto. Estos carteles deberán, además, informar de la prohibición de venta de tabaco a personas menores de 18 años y advertir sobre los perjuicios para la salud derivados del uso del tabaco. En estos establecimientos se exigirá a todas las

direla egiazta dezatela balio ofizialeko agiri baten bidez, halakoak direla begi-bistakoa de-nean izan ezik.

5. Debehatuta egongo da geruza naturalik ez du-ten zigarretak eta zigarro txikiak merkaturatzea, saltzea eta banatzea banaka edo 20 ale baino gutxiagoko paketeetan.
6. Debehatuta egongo da, merkataritza-edo en-presa-jarduera bat gauzatzean, edozein tabako-produkturen laginak ematea edo banatzea, doakoak izan ala ez.

Merkataritza- edo enpresa-jarduera batean nikotina aska dezaketen gailuen laginak ematea edo banatzea gertatzen dela esango dugu baldin eta fabrikatzaileak, ekoizleak, banatzaileak, inportatzaileak edo saltzaileak zuzenean eman edo banatzen badu.

7. Berariaz debehatuta geratzen da tabako-produktuen txikizkako salmenta edo banaketa zeharka edo modu ez-pertsonalean egitea, urrutiko salmentaren edo antzeko sistemen bi-dez.

### 39. artikulua. Tabako produktuak tabako makina bidez saldu eta banatzeko mugak

Tabako-produktuak tabako-makinen bidez sal-tzeko edo banatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

1. Erabilera: debehatuta egongo da 18 urtetik beherakoek tabako-makinak erabiltzea.
2. Kokapena: tabako-makinak kalean dauden prentsa-kioskoen barruan, kalera irispidea du-ten prentsa-salmentarako lokal espezifikoe-tan eta, zerbitzuguneetan badaude, Merkataritza Ordutegiei buruzko abenduaren 21eko 1/2004 Legearen 5.4 artikuluan aurreikusitako kome-ntziako dendetan edo baldintza hori betetzen dutela egiaztatzen duen agiria aurkezten dute-netan jarri beharko dira –merkataritzaren alo-rrean eskumena duen agintaritzak emandako egiaztatzea behar du izan–, edo honako beste leku hauetan:
  - a) Hoteletan eta antzeko establezimendue-tan.
  - b) Tabernetan, jatetxeetan eta sukaldari-tzako gainerako establezimendu itxietan.
  - c) Dantzalekuetan eta joko-establezimen-duetan.

Tabako-makinen salmentarekin batera, Tabako Merkaturako Ordezkaritzaren administrazio-

personas compradoras, salvo que sea evidente que son mayores de edad, acreditar dicha edad mediante documento de valor oficial.

5. Se prohíbe la comercialización, venta y suministro de cigarrillos y cigarritos no provistos de capa natural en unidades sueltas o empaquetamientos de menos de 20 unidades.
6. Se prohíbe, en el ejercicio de una actividad comercial o empresarial, la entrega, suministro o distribución de muestras de cualquier producto del tabaco, sean o no gratuitas, y la venta de productos del tabaco con descuento.

Se presume que la entrega, suministro o distribución de muestras tiene lugar en el ejercicio de una actividad comercial o empresarial cuando se efectúa directamente por la persona fabricante, productora, distribuidora, importadora o vendedora.

7. Queda expresamente prohibida la venta o suministro al por menor de productos del tabaco de forma indirecta o no personal, mediante la venta a distancia o procedimientos similares.

### Artículo 39. Limitaciones al suministro y venta de productos del tabaco a través de máquinas expendedoras

La venta y el suministro a través de máquinas expendedoras se realizará de acuerdo con las siguientes condiciones:

1. Uso: se prohíbe a las personas menores de 18 años el uso de máquinas expendedoras de productos del tabaco.
2. Ubicación: las máquinas expendedoras de productos del tabaco sólo podrán ubicarse en el interior de quioscos de prensa situados en la vía pública, en locales específicos de venta de prensa con acceso directo a la vía pública y en las tiendas de conveniencia previstas en el artículo 5.4 de la Ley 1/2004, de 21 de diciembre, de Horarios Comerciales, que estén ubicadas en estaciones de servicio o que aporten certificación acreditativa de esa condición, expedida por la autoridad competente en materia de comercio, así como en:
  - a) Hoteles y establecimientos análogos.
  - b) Bares, restaurantes y demás establecimientos de restauración cerrados.
  - c) Salas de fiesta y establecimientos de juego.

En paralelo a la venta a través de máquinas expendedoras, se permitirá la venta manual de



baimena duten lokaletan zilegi izango da geruza naturala duten zigarroak eta zigarro txikiak eskuz saltzea.

Ezin izango dira kokatu lokalei erantsitako gu-  
neetan edo lokalen aurrean dauden sarbidee-  
tan, hala nola haize-babeslekuetan, ataripee-  
tan, portikoetan, merkataritza-guneetako korri-  
doreetan, atarteetan, gelarteetan, eskaileretan,  
karrerapeetan edo antzeko lekuetan, baldin,  
eraikinaren zati izanik ere, berez ez badira erai-  
kinaren barrualdea.

3. Ezaugarriak: makina horiek behar bezala erabi-  
liko direla bermatzeko, mekanismo tekniko ego-  
kiak izan beharko dituzte, adingabeek makinak  
erabiltzea eragozteko.
4. Bateriaezintasunak: makina horien bidez ezin  
izango da banatu tabakoa ez den ezer.
5. Erregistroa: Tabako Merkaturako Ordezkaritzak  
kudeatutako erregistro berezian inskribatuko  
dira tabako-makinak.
6. Osasun-ohararazpena: makinaren aurrealdean,  
argi eta ikusteko moduan, ohar bat agertuko  
da, tabakoaren erabilerak osasunean eragiten  
dituen kalteez ohararazteko, adingabeei dago-  
kienez bereziki.

### 3. atala

**Tabako-kontsumoa mugatzea, hirugarrenei eragi-  
ten dien neurrian**

#### 40. artikulua. Tabakoa kontsumitzea

1. Debehatuta egongo da erretzea erabilera pu-  
blikoko gune itxi eta erdi-itxi guztietan eta herri-  
tarrentzat zabalik dauden edo erabilera kolekti-  
bokoak diren lekuetan, titulartasuna publikoa  
zein pribatua izan. Gune erdi-itxiztat jotzen dira  
lokal itxi baten kanpoaldean kokatutako eremu  
guztiak, baldin eta haien teilatuek edo hormek  
azaleraren % 50 baino gehiago estaltzen  
badute eta eremuak etengabe aireztatuak ez  
badaude, kea era naturalean ezabatzen dela  
bermatzen duen kanpoko airearen bidez.
2. Ondoren aipatzen diren lekuetan, debehatuta  
egongo da erretzea:
  - a) Lantoki publikoetan eta pribatuetan, aire  
zabaleko guneetan izan ezik.
  - b) Administrazio publikoen eta zuzenbide  
publikoko erakundeen zentroetan eta  
bulegoetan.

cigarros y cigarritos provistos de capa natural  
en dichos locales que cuenten con la autoriza-  
ción administrativa otorgada por el Comisiona-  
do para el Mercado de Tabaco.

No se podrán ubicar en las áreas anexas o de  
acceso previo a los locales, como son las zonas  
de cortavientos, porches, pórticos, pasillos de  
centros comerciales, vestíbulos, distribuidores,  
escaleras, soportales o lugares similares que  
puedan ser parte de un inmueble pero no  
constituyen propiamente el interior de éste.

3. Características: para garantizar el uso correcto  
de estas máquinas, deberán incorporar los me-  
canismos técnicos adecuados que permitan  
impedir el acceso a menores de edad.
4. Incompatibilidad: en estas máquinas no podrán  
suministrarse otros productos distintos del taba-  
co.
5. Registro: las máquinas expendedoras de tabaco  
se inscribirán en un registro especial gestionado  
por el Comisionado para el Mercado de Tabaco-  
s.
6. Advertencia sanitaria: en la superficie frontal de  
las máquinas figurará, de forma clara y visible  
una advertencia sanitaria sobre los perjuicios  
para la salud derivados del uso del tabaco,  
especialmente para las personas menores de  
edad.

### Sección 3.ª

**Limitaciones al consumo de tabaco en cuanto que  
afecta a terceras personas**

#### Artículo 40. Consumo de tabaco

1. Se prohíbe fumar en todos los espacios cerra-  
dos y semicerrados de uso público, lugares  
accesibles al público en general o lugares de  
uso colectivo con independencia de su titulari-  
dad pública o privada. Se entiende por espa-  
cios semicerrados todas las zonas ubicadas  
fuera de un local cerrado que estén cubiertas  
por techumbre o paredes en más del 50 % de  
su superficie y no se encuentren permanente-  
mente ventiladas por aire del exterior que per-  
mita garantizar la eliminación de humos de  
forma natural.
2. En particular, se prohíbe fumar en:
  - a) Centros de trabajo públicos y privados,  
salvo los espacios al aire libre.
  - b) Centros y dependencias de las adminis-  
traciones públicas y entidades de dere-  
cho público.

- |   |  |
|---|--|
| <p>c) Osasun-etxe, -zerbitzu eta -establezimenduetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere.</p>  | <p>c) Centros, servicios y establecimientos sanitarios, incluidas las zonas anejas cerradas, semicerradas y al aire libre.</p>   |
| <p>d) Ikastetxeetan eta prestakuntza-etxeetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere. Unibertsitate-zentroetan eta bereziki helduen prestakuntzara bideratutakoetan, zentroaren zuzendaritzari baimena ematen zaio erretzeko eremuak jartzeko, gune itxi eta erdi-itxietatik kanpo.</p>   | <p>d) Centros docentes y formativos, incluidas las zonas anejas cerradas, semicerradas y al aire libre. En los centros universitarios y en los dedicados especialmente a la formación de personas adultas, se permite a la dirección del centro habilitar zonas para fumar, fuera de los espacios cerrados y semicerrados.</p>   |
| <p>e) Kirol-instalazioetan, baita erantsitako eremu itxi, erdi-itxi eta aire zabalekoetan ere.</p>  | <p>e) Instalaciones deportivas, incluidas las zonas anejas cerradas, semicerradas y al aire libre.</p>   |
| <p>f) Ikuskizun publikoak egiteko erabiltzen diren lekuetan, baita aire zabalean daudenean ere, baldin eta adingabeentzako jarduerak badira.</p>  | <p>f) Lugares donde se desarrollen espectáculos públicos, incluso al aire libre, cuando las actividades desarrolladas vayan dirigidas prioritariamente a menores.</p>  |
| <p>g) Haur-parkeetan eta haurrentzako jolas-toki edo -eremuetan, berariaz adingabeen jolaserako eta olgetarako ekipamendua edo egokitzapenak dituztenean eta behar bezala mugarrituta daudenean; baita aire zabalean ere.</p>   | <p>g) Parques infantiles y áreas o zonas de juego para la infancia que contengan equipamiento o acondicionamientos destinados específicamente para el juego y esparcimiento de menores debidamente acotados, incluso al aire libre.</p>  |
| <p>h) Jendea zuzenean artatzeko eremuetan.</p>  | <p>h) Zonas destinadas a la atención directa al público.</p>   |
| <p>i) Merkataritza-guneetan, azalera handiak eta galeriak barne.</p>  | <p>i) Centros comerciales, incluyendo grandes superficies y galerías.</p>  |
| <p>j) Hoteletan eta antzeko establezimenduetan, aire zabaleko guneetan izan ezik. Hala ere, gela % 30eraino gorde ahal izango da erretzaileentzat. Erretzaileentzako gelek finkoak izan beharko dute eta ondorengo eskakizunak bete beharko dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Gainerako geletatik bereizita dauden tokietan egotea, eta aireztapena independentea edo kea ezabatzeke bestelako gailurik izatea.</li> <li>2. Kartel iraunkorren bidez adierazita egotea sarrerako atearen kanpoaldean eta gelaren barruan.</li> <li>3. Bezeroa aurretiaz jakinaren gainean egotea emango zaion gelamotaren inguruan.</li> <li>4. Langileek gela barrura sartzerik ez izatea bezeroen bat han dagoen bitartean, larrialdi-kasuetan izan ezik.</li> </ol> | <p>j) Hoteles y establecimientos análogos, salvo los espacios al aire libre. No obstante, se podrá reservar hasta un 30 % de habitaciones fijas para personas fumadoras. Las habitaciones para fumadores y fumadoras deberán cumplir con los siguientes requisitos:</p> <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Estar en áreas separadas del resto de las habitaciones y con ventilación independientes o con otros dispositivos para la eliminación de humos.</li> <li>2. Estar señalizadas con carteles permanentes en el exterior de la puerta de acceso y en el interior de la habitación.</li> <li>3. Que la o el cliente reciba previa información del tipo de habitación que se pone a su disposición.</li> <li>4. Que el personal no pueda acceder a ellas mientras se encuentre alguna o algún cliente en su interior, salvo en casos de emergencia.</li> </ol> |



- |    |   |    |  |
|----|---|----|--|
| k) | Tabernetan, jatetxeetan eta sukaldaritzaiko gainerako establezimendu itxi edo erdi-itxietan.  | k) | Bares, restaurantes y demás establecimientos de restauración cerrados o semicerrados.  |
| l) | Aisia- edo olgeta-etxeetan, aire zabaleko guneetan izan ezik.   | l) | Centros de ocio o esparcimiento, salvo en los espacios al aire libre.  |
| m) | Gizarte-laguntzako zentro, ostatu eta bestelako establezimenduetan.   | m) | Centros, alojamientos y otros establecimientos de atención social.   |
| n) | Kultura-etxeetan, irakurgetan, erakusketa-aretoetan, liburutegietan, hitzaldi-aretoetan eta museoetan.  | n) | Centros culturales, salas de lectura, exposición, biblioteca, conferencias y museos.   |
| o) | Antzokietan, zinema-aretoetan eta gune itxi edo erdi-itxietan egiten diren beste ikuskizun publikoetan.   | o) | Salas de teatro, cine y otros espectáculos públicos que se realicen en espacios cerrados o semicerrados.   |
| p) | Dantzalekuetan eta jokorako edo, oro har, erabilera publikoko establezimenduetan, aire zabaleko guneetan izan ezik.   | p) | Salas de fiesta, establecimientos de juego o de uso público en general, salvo en los espacios al aire libre.   |
